




ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

# **ARRASATEko KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**



**2. liburukia:  
Ildo estrategikoak,  
programak eta proiektuak**

2018ko otsaila

## **Edukia**

1.	OINARRI ESTRATEGIKOAK.....	3
1.1.	Kirolak etorkizunean izango duen betekizuna: misioa, ikuspegia eta balioak zehaztea ...	3
1.2.	Printzipio gidariak identifikatzea.....	5
2.	ESTRATEGIA ADIERAZTEA: ILDO ESTRATEGIKOAK ETA LAN PROGRAMAK.....	8
2.1.	A ildo estrategikoa. Bizitza osorako jarduera fisikoaren eskaintza sustatzea.....	9
2.2.	B ildo estrategikoa. Antolamendu eredua eta lankidetzak egiturak dinamizatzea .....	10
2.3.	C ildo estrategikoa. Kirol ekipamenduak hobetzea.....	11
2.4.	D ildo estrategikoa. Kirol turismo arduratsua sustatzea .....	12
3.	ESTRATEGIATIK EKINTZARAKO JAUZIA .....	13
3.1.	Proiektuen ezaugarriak finkatzea.....	13
3.2.	A ildo estrategikoaren garapena. Bizitza osorako jarduera fisikoaren eta kirolaren eskaintza sustatzea .....	17
3.3.	B ildo estrategikoaren garapena. Antolamendu eredua eta lankidetzak egiturak dinamizatzea.....	30
3.4.	C ildo estrategikoaren garapena. Kirol ekipamenduak hobetzea .....	38
3.5.	D ildo estrategikoaren garapena. Kirol turismo arduratsua sustatzea.....	49

## 1. OINARRI ESTRATEGIKOAK

### 1.1. Kirolak etorkizunean izango duen betekizuna: misioa, ikuspegia eta balioak zehaztea

Arrasateko kirol sistemaren egoeraren diagnosia egin ostean, funtsezkoa da **etorkizunean hirian kirolak nolakoa izan beharko zukeen definitzea**. Kirolaren datozen 10 urteetako ikuspegia oso garrantzitsua da; izan ere, horixe izango da planaren helburu estrategikoak zehazteko eta lan programak eta proiektuak gauzatzeko gidari lanak egingo dituen oinarria.

Jarraian aurkeztuko dugun udalerriko etorkizuneko kirolaren definizioa, hain zuzen, analisisan eta diagnosian egindako lanaren ondorioa da; betiere, kirol eragileekin egindako partaidetza saioetako emaitzak kontuan izanda.

Hala, ulertzen da Arrasate **hiri aktibo eta osasungarria** dela. Udalaren kirol politiken aspaldi honetako helburua izan da herritarrek **euren bizitza osoan zehar jarduera fisikoa eta kirola egin dezaten** sustatzea, eta helburu hori indartzen jarraitu nahi dute. Horrenbestez, hauek dira Arrasateko kirol sistemaren egitekoak:

1. Bizitzako etapa guztietan zehar kirola egiteko aukerak eta irisgarritasuna ematea.
2. Udal baliabide guztiak modu eraginkorrean kudeatzea, eta herritar talde guztietara iristea.
3. Kirol eragile eta antolatzaileekin elkarlanean jardutea, ahaleginak batzeko eta kirol jarduna egonkortzeko.

Horretarako, **Arrasateko Kirol Arloaren misioa, ikuspegia eta balioak** proposatuko ditugu jarraian, plan estrategiko hau garatu ahal izateko. Plana bera baita udalerrian jarduera fisikoa eta kirola egitearen sustatzaile eta dinamizatzaile nagusia.

**Misioak**, bereziki, erakundeak gizartean duen zeregina edo izateko arrazoia definitzen du. Hala, erakundearen funtsa eta arrazoi nagusia deskribatzen ditu.

Kirol Arloa da Arrasateko kirol eragile nagusia. Adin eta talde guztientzako jarduera fisikoa eta kirola sustatzeko eta garatzeko egiten du lan eta, beraz, kirol eskaintza askotarikoa eta zabala antolatzen du herritar guztientzat, eta arlo hau da, hain zuzen, tokiko kirol eragileek duten babesik handiena.

**Ikuspegiak**, berriz, arlo honek etorkizunean lortu nahi dituen helburuak definitzen ditu. Helburu horiek errealistak eta egingarriak izan behar dute, gisa honetako galderi erantzunez: Zer nahi dugu lortu? Non egon nahi dut? Norentzat egingo dut? Oro har, ikuspegiaren

**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

proposamenak izaera inspiratzailea eta motibatzailea dauka, etorkizunean lortu beharreko estrategiak eta helburuak garatzeko.


Kirol Arloak erreferentziatzeko eragilea izan nahi du jardura fisikoa eta kirola dinamizatzeko eta sustatzeko. Hala, herritarren, kirol eragileen, kirol espazio eta instalazioen eta baliabideen arteko premiak koordinatuko ditu, Arrasate hiri osasungarri, dinamiko eta aktiboa izan dadin; betiere, parekidetasun, irisgarritasun eta erantzunkidetasun printzipioak bermatuz.

Balioak, azkenik, erakundearen kulturaren oinarrian dauden printzipio etikoak dira, eta gure erakundeko kide, hornitzaile zein erabiltzaile guztien arteko portaera gidalerroak sortzen eta partekatzen laguntzen dute. Gehienez ere 4-6 balio aukeratzea gomendatzen da. Kirol Arloko balioen hautaketaren ezaugarriak hauek izatea proposatzen da:

- **Unibertsala eta inklusiboa:** Arrasateko kirol eskaintzak herriko herritar guztiengana iritsi behar du, kirol jardueren eskaintza zabala bermatuz, eta taldeen artean bereizketarik egin gabe; betiere, kirola egiten duen pertsonari begira arituz.
- **Parekidetasunean oinarritutakoa:** kirolak aukera berdintasuna eta gizonen zein emakumeen ikusgaitasuna susta dezake, estereotipoetatik ihesi eta parekidetasunean oinarritutako hizkuntza erabiliz.
- **Irekia:** kirol sistemak berak ematen du bilakaerarako aukera, ager daitezkeen joera eta jardura edo/eta kudeaketa modu eta ekimen berrien arabera.
- **Lankidetzan oinarritutakoa:** sektorean dauden eskaera berriek eta kirol munduan dagoen kalitate eskakizunak ezinbestean ekarri dute kirolaren antolamendua eta kudeaketa lankidetzan oinarrituta egin beharra, Udalaren eta erakundeen artean, bai eta erakundeek euren artean zein sektore pribatuarekin ere, sinergiak bilatuz. Era horretan, kirol sistemaren kalitateari eusteko aukera izango da.
- **Bilakaera fase bakoitzari egokitutakoa:** kirol jardunaren garapenak kirola egiten duen pertsonaren adinak izaten dituen premietara egokitu beharko du; bereziki, eskola adinean. Kirol plangintza egitean, kirol errendimenduaren aurrean garapen fisikoa eta mugimendu garapena errespetatzea oso ezaugarri garrantzitsua da.

**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

**1. irudia. Arrasateko Kirol Arloaren misioa, ikuspegia eta balioak**



Iturria: Geuk egina (2017).

**1.2. Printzipio gidariak identifikatzea**

Egindako landa lanean zehar, aztergai guztietan errepikatzen diren elementu komunak identifikatu ditugu. Análisi fasean errepikatu dira; nola elkarrizketetan, hala proposamen fase honen hasieran egindako lantalde dinamizatzaillean.


Hainbat aztergaietan errepikatu direnez, eta parte hartzen duten eragileek ere errepikatu dituztenez, garrantzia areagotzen zaie, eta kontuan hartuko dira estrategia osatzean. Gainera, analisisiko elementu errepikakor horiek eta jarduera fisikoaren eta kirolaren hainbat arlotako zeharkako elementuak bat datoz Kirol Arloko estrategiarako identifikatutako balio batzuekin.

Horrenbestez, elementu horiek jo dira Arrasateko Kirolaren Plan Estrategikoaren printzipio gidarizat. Printzipio gidariak, hain zuzen, ildo estrategikoak eta horien helburuak proposatzean eta proposatutako proiektuen garapenean kontuan hartu beharreko elementuak

**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

dira, proiektu bakoitzak gutxienez printzipio gidari batean eragina izan dezan. Hauek dira hiru printzipio gidariak:

**2. irudia. Kirolaren Plan Estrategikoaren printzipio gidariak**




Iturria: Geuk egina (2017).

- **Irisgarritasuna:** herritar guztiek eduki behar dute kirola egiteko aukera. Dauden sarbide oztopo guztiak desagerrarazteko lan egin behar da.
- **Parekidetasuna:** kirolak aukera berdintasuna eta gizonen zein emakumeen ikusgaitasuna sustatu behar du, estereotipoetatik ihesi eta parekidetasunean oinarritutako hizkuntza erabiliz.
- **Erantzunkidetasuna:** kirol eskaintzan eta ohitura osasungarrien sustapenean parte hartzen duten eragile guztiek esku hartu behar dute eskaintza honen garapenean, baliabideak eta sinergiak batuz eta pisu guztia Kirol Zerbitzuaren bizkar gera ez dadin saiatuz.

Horrenbestez, hiru printzipio gidari horiek garatu beharreko ildo estrategiko guztietan egon beharko dute; izan ere, zeharkako elementuak dira guztietan, eta ezinbestekoa da lan programa eta proiektu guztiak printzipio gidariaren ikuspegitik garatzea eta, era horretan, Arrasaten kirola parekidetasunean oinarritutakoa eta irisgarria izatea bermatuko da, eragile guztien partaidetza arduratsuarekin.

ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA  
2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak

3. irudia. Printzipio gidarien zeharkakotasuna



Iturria: Geuk egina (2017).

Lan modu hori erabiliz, berrmatuko da kontzeptu horiek ildo guztietan garatzea, beroriekin lotutako ekintza espezifikoak egiteko aukerarekin. Proposamen horrek dakar, halaber, ildo estrategiko batean baino gehiagotan bil daitezkeen ekintzak egotea, eta antzeko ekintzak edo euren artean harremana dutenak azal daitezke.

## **2. ESTRATEGIA ADIERAZTEA: ILDO ESTRATEGIKOAK ETA LAN PROGRAMAK**

Jarraian zehaztu eta garatuko ditugu Arrasaterako datozen urteetarako ildo estrategikoak eta lan programak. Horien bideari jarraitu beharko zaio dokumentu honetako lehenengo atalean kirolarentzat deskribatutako betekizuna lortu ahal izateko. Egindako diagnostikoa izango da abiapuntua, bai eta aukeratutako printzipio gidariak eta Kirol Arloaren misioa, ikuspegia eta balioak ere, horixe baita herriko kirol eragile nagusia.

4 ildo estrategiko proposatu dira; bakoitza kirolaren arlo jakin batean ardaztuta. Ildo horiek are lan programa espezifikoagoen bitartez garatuko dira, arlo zehatzagoetan eta, aldi berean, lan programa horiek garatu beharreko bestelako proiektu eta ekintza batzuk izango dituzte.

<b>A ildo estrategikoa</b> <b>Bizitza osorako jarduera fisikoaren eta kirolaren eskaintza sustatzea</b>
<b>B ildo estrategikoa</b> <b>Antolamendu eredua eta lankidetzak egiturak dinamizatzea</b>
<b>C ildo estrategikoa</b> <b>Kirol ekipamenduak hobetzea</b>
<b>D ildo estrategikoa</b> <b>Kirol turismo arduratsua bultzatzea</b>



## 2.1. A ildo estrategikoa. Bizitza osorako jarduera fisikoaren eskaintza sustatzea

### A ildo estrategikoa

#### Bizitza osorako jarduera fisikoaren eta kirolaren eskaintza sustatzea



#### Deskribapena

Edozein pertsonaren kirol bizitzak hainbat etapa izaten ditu, eta etapa bakoitzak, aldi berean, bizitza une bakoitzarekin lotutako ezaugarriak. Etapa guztietan ohitura osasungarriak eta bizimodu aktiboa izateko, garrantzitsua da bakoitzaren ezaugarrietara egokitzea eskaintza. Horretarako, eskaini beharreko jarduerak, instalazioek eta zerbitzuek malguak izan beharko dute etapa bakoitzean, kirolarien bizitzako une bakoitzeko premietara eta kirol sektorearen etengabeko eraldaketara egokituz.

#### Helburuak

- Eskola adineko kirol eredia berrikustea eta eguneratzea
- Nerabezaroan kirola egiteari uzteko joera gutxitzea
- Kirol jardunerako sarbidea unibertsalizatzea
- Helduentzat eta adineko pertsonentzat ere Udalaren kirol eskaintza bat finkatzea

Lan programak	A1. Eskola adineko kalitatezko kirol eredia	Udalerrian eskola adinean dauden pertsonen eskaerak hautemateak eta kirol erakundeekin batera lanean jarduteak asko lagunduko dute etapa honetan egokiena den kirol eredia definitzen eta egokitzean.
	A2. Nerabezaroan eta gaztaroan kirola egiten jarraitzea	Kirola egiten jarraituko dutela bermatzen lagunduko duten hainbat alderdi landu beharko dira eta, era berean, talde horren premiak hauteman; halaber, aisiari gehiago begiratuko dion kirol eskaintza handitu, eta zerbitzu zein instalazioak egokitu beharko dira.
	A3. Kirolerako irisgarritasuna bermatzea	Herritarren profil guztiei kirola egiteko aukera erraztea, hainbat irtenbideren bitartez: laguntza sistema, sarrera libreko instalazioak, eskaintza malguak talde espezifikoenentzat...
	A4. Eskaintza herritarren zahartze joerara egokitzea	Udalerriko adineko pertsonentzat gaur egun dagoen eskaintza handitzea, horien premia fisiko eta sozialetara egokituz; betiere, zerikusia duten udal sailekin zeharka lan eginez.

## 2.2. B ildo estrategikoa. Antolamendu eredua eta lankidetzaren egiturak dinamizatzea

### B ildo estrategikoa Antolamendu eredua eta lankidetzaren egiturak dinamizatzea



#### Deskribapena

Landa lanean egiaztatu ahal izan dugu zeinen garrantzitsuak diren kirol eragileak hiriko kirol eskaintzan, bai eta eragileen arteko bilakaerarako eta lankidetzarako dagoen premia ere, jarduera fisikoaren eta kirolaren sektoreak izaten duen etengabeko eraldaketa bizkorrera egokitzeko. Sektorea geroz eta zabalagoa, zeharkakoagoa, konplexuagoa eta aldakorragoa da. Erabilgarri dauden baliabideen mugak, batetik, eta arlo horrek osasuna eta bizi-kalitatea, aisia eta astialdia eta gizarteratzea lantzeko edo eragin ekonomikoa sortzeko tresna gisa duen ahalmen handiak, bestetik, dakartena da ezinbestean izatea kirol eredua zehazteko eta horren baitan eragile bakoitzak izango duen betekizuna zehazteko premia.

#### Helburuak

- Arrasaten kirola antolatzeko eredua definitzea
- Sinergiak batuz, zeharkako eta lankidetzarako lan sare bat sortzea
- Kirol eragileak profesionaliza daitezen sostenguak jartzea
- Kirol sistemaren aginte koadro bat abiaraztea eta egonkortzea

Lan programak	B1. Antolamendu eredua eta kirol eragileen betekizuna zehaztea	Jardunbide ildo nagusia, kirol eragile bakoitzaren eta Udalaren kirol sisteman zeharkakoak diren bestelako eragile batzuen betekizuna eta erantzukizunak zehaztea
	B2. Elkarrekin eragilearen sostengua ematea, kalitatezko kirola lortzeko	Arrasateko kirol eskaintzan kirol eragilearen profesionalizazioari eta erantzukizunari sostengua emateko sistemak sortzea.
	B3. Arrasateko kirolaren eta jarduera fisikoaren aginte koadroa	Udalaren kirol sistemaren aginte koadro osotu bat diseinatzea, sistemaren bilakaerari buruzko datuak modu erregularrean jaso ahal izateko eta erabakiak hartzeko lana errazteko.

**2.3. C ildo estrategikoa. Kirol ekipamenduak hobetzea**

**C ildo estrategikoa**  
**Kirol ekipamenduak hobetzea**



<b>Deskribapena</b>	<p>Gaur egungo kirol ekipamenduek eta horien kontserbazio egoerak ezinbestean eskatzen dute arlo horretan etorkizuneko estrategia bat finkatzeko premia. Askotariko eta kalitatezko kirol ekipamendu bat izateko borondatearekin, eta etorkizuneko jardun posiblei erreparatuz, kirol ekipamendu eta espazioak berraztertu beharra dago, biztanleak, horien ezaugarriak eta premiak aintzat hartuz.</p>	
<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gaur egungo ekipamenduak hobetzeko jardunak egitea, hala behar badute</li> <li>• Ingurune naturala eta hiri ingurunea kirola egiteko espazio gisa balioan jartzea</li> <li>• Kirolerakoak ez diren espazioak egokitzea, hurbileko oinarrizko kirola egin ahal izateko</li> <li>• Ekipamenduen kontserbazio egoerari jarraipen bat egitea</li> </ul>	
<b>Lan programak</b>	C1. Kirol ekipamenduen berrikuntzak eta hobekuntzak	<p>Ohiko ekipamenduak hobetzeko jardunak egitea, araudira eta oraingo zein etorkizuneko eskaintzara egokitzeko. Eta eskoletan ere bai, eskola ordutik kanpoko ordutegian ere horien erabilera sustatzeko; bai eta beste udal ekipamendu batzuetan ere.</p>
	C2. Esku hartzeak hiri ingurunean eta ingurune naturalean	<p>Jarduera fisikoa egiteko elementuak txertatzea eta aire zabaleko espazioak egokitzea eta dinamizatzea, naturan zein hiri ingurunean era horretako espazioei ahalik eta etekinik handiena ateratzeko.</p>
	C3. Instalazioen mantentze lana optimizatzeko jardunak	<p>Ekipamenduen kontserbazio egoera kontrolatzeko mekanismoak finkatzea, eta gauzatu beharreko jardunen plangintza egokia egitea.</p>

## 2.4. D ildo estrategikoa. Kirol turismo arduratsua sustatzea

### D ildo estrategikoa Kirol turismo arduratsua sustatzea



#### Deskribapena

Arrasatek turismo aktiborako eta natur turismorako duen ahalmena handia da; gainera, Turismo Sailaren helburuetako bat da hori. Udalerri mailan zeharkako lana eta eragile pribatuekiko lana (izan kirol arlokoak zein ez) bultzatu beharko litzatekeela uste da, baldin eta familia kirolean oinarritutako turismo eskaintza bat bultzatu nahi bada, espazio egokiak eskainiz eta kirol ekitaldiek herriaren sustapen eta dinamizazio ekonomikorako duten ahalmenari etekina ateraz.

#### Helburuak

- Zeharka lan egitea, era askotako ikuspegiak lortzeko
- Arrasateko kirol turismoaren marka bultzatzea eta marka hori eskaintza gehiagoz hornitzea
- Kalitatezko kirol turismorako espazio eta zerbitzuak zaintzea
- Gauzatutako ekitaldiek sortutako jarduera ekonomikoa aintzat hartzea

Lan programak	D1. Hainbat eragile espezializaturekin lankidetzeta lana	Kirol turismoan parte hartzen duten eragileekin elkarlanean aritzeko formulak finkatzea, estrategiak eta lan programak zehazteko zein gauzatzeko.
	D2. Turismoan eragin handia izango duten ekitaldiak antolatzea	Kirol ekitaldi berriak sortzea edo dagoeneko egiten direnak inportatzea eta horietan parte hartzea, turismo mailan mugimendu handia ekarriko baitute.
	D3. Komunikazioa eta sustapen ekintzak hobetzea	Arrasate kirola egiteko norako ezin hobea dela adierazteko eta hori ikusarazteko ekintza multzo bat gauzatzea.
	D4. Estrategien plangintza eta jarraipena egitea	Gauzatutako ekitaldiek eta ekintzek ekarritako ondorio ekonomikoei jarraipena egitea ahalbidetuko duten eta lortutako emaitzetatik abiatuta etorkizuneko estrategiak planifikatzen lagunduko duten tresnak baliatzea.


### 3. ESTRATEGIATIK EKINTZARAKO JAUZIA

Behin ildo estrategikoak eta horietako bakoitzerako gauzatu beharreko lan programak identifikatuta, helburuak betetzeko abiarazi beharreko proiektuak zehaztuko dira. Lan proiektu batek hainbat ekintza espezifiko izan ditzake, emaitza jakin batzuk lortzeko. Proiektuek iraupen bat ala beste izan dezakete, bai eta ekintza bolumen jakin bat ala beste ere. Malguak izan beharko dute, eta abiarazi aurretik sor daitezkeen premietara egokitzen joan beharko dute. Ezinbestekoa da abiarazteari jarraipena egitea, aldian behin helburuen betetze maila aztertzeko eta zailtasun nagusiak hautemateko.

Jarraian, proiektuak zehazteko aukeratutako ezaugarriak zehaztuko ditugu. Hurrengo puntuan, berriz, aukeratutako jardun faseak, kostuen taulak eta proiektuen garapenean parte har dezaketen eragile dinamizatzailerak posibleak definituko ditugu. Horiek definitu ostean, hainbat proiekturen bitartez lan programak garatuko ditugu.

#### 3.1. Proiektuen ezaugarriak finkatzea

Arrasateko Kirolaren Plan Estrategiko honen irismena 10 urtekoa da; beraz, 2027an amaituko da. Halere, beharrezkoa da epe hori hainbat lan fasetan banatzea. Honako hauek proposatu ditugu:



Plan estrategikoak malgua izan behar du derrigor, eta tokiko kirol sistemaren eraldaketara eta sektorearen bilakaerara egokitzen joan beharko du, bai eta une jakin bakoitzean erabilgarri dauden baliabideetara ere. Horregatik, proiektu gehienak lehenengo bi faseetan metatuko dira. Hirugarren fasean, beraz, aurreko biak ezartzetik eratorrita, proiektu berriak agertu ahal izango dira.


Bestalde, garatu beharreko proiektu eta ekintza guztiek izango dute euren kostua. Kostu horrek ez du ezinbestean izan behar zuzeneko gastu ekonomiko bat; aitzitik, pertsona batek garapen horretan egindako lan edo jardunari dagokiona ere izan liteke. Estrategia garatzeko aukeratutako proiektuek izan dezaketen kostuaren maila identifikatzeko honako 4 maila hauek proposatzen dira:

**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**



Proposamen bakoitzaren kostu posiblea modu bereizian aztertu dugu, baina askok eta askok sinergiak dituzte; horrenbestez, antzekotasunei etekina atera, eta elkarrekin gauzatu gero, kostua txikiagoa izan liteke. Kasu batzuetan, ez da lan erraza ekintzaren kostua finkatzea, neurri handi batean, eragina izango baitu erakundeko giza baliabide berekiek gauzatzeko edo kanpoko enpresa bat kontratatzeak. Bigarren kasuan, kostuak handiagoak izango dira, handiagoak izango diren bezalaxe ekintza bakoitzaren garapenaren zehaztapen eta zabalera mailak.

Kirol ekipamenduekin lotutako ekintzen kostuak zehazteko, beste baremo bereki bat finkatu dugu, era horretako ekintzek berez dakarten gastu handia dela tarteko, inbertsioen sailari eguneroko aurrekontu arruntari baino gehiago dagokiola.



Ekintza batzuen emaitzak abiaraziz gero, 100.000 €-tik gorako kostuak izan ditzakegu. Kasu honetan, ekintza nagusiaren kostua zehaztu dugu, eta \* batekin adierazi dugu horren ondoriozko ekintzen geroko kostua.

**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

Proposatutako proiektu eta ekintzek Udaleko Kirol Arloaren partaidetzaren premia dute, baina gehienetan, beste eragile dinamizatzailerik batzuek esku hartzea eskatzen da, sinergiak, baliabideak eta ahaleginak batzeko, eta jarduera fisikoak eta kirolak tresna gisa eskaintzen diguten ahalik eta zeharkakotasun handiena lortzeko. Eragileen lidergoa eta esku hartzea askotarikoa izan liteke: etengabeko partaidetza izan dezakete, edo, bestela, aldian behingoa, une edo ekintza espezifiko batzuetan. Hona hemen etengabeko lankidetzarako egokiak diren eragile nagusiak.

<b>Tokiko kirol sistemako eragile dinamizatzailerik</b>	
<b>Udal sailak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hezkuntza Saila</li> <li>• Gazteria Saila</li> <li>• Berdintasun Saila</li> <li>• Euskara Saila</li> <li>• Kultura Saila</li> <li>• Hirigintza Saila</li> <li>• Obrak, Zerbitzuak, Mantentzea eta Auzoen Saila</li> <li>• Ingurumen Saila</li> <li>• Ongizate Saila</li> <li>• Toki Garapena Saila</li> <li>• Zerbitzu ekonomikoak</li> </ul>
<b>Tokiko eta eskualdeko asoziazio arloa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kirol klubak eta erakundeak</li> <li>• Gizarte entitateak</li> <li>• Ingurumen eta kultura arloko erakundeak</li> <li>• Tokiko merkataritza erakundeak</li> </ul>
<b>Tokikoaz haraindiko arloa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Debagoieneko Eskualde Kontseilua</li> <li>• Gipuzkoako Foru Aldundia</li> <li>• Eusko Jaurlaritza</li> <li>• Mondragon Unibertsitatea</li> <li>• TAFyD prestakuntza zikloak</li> </ul>
<b>Merkataritza arlo pribatua</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udalerriko kirol zentro pribatuak</li> <li>• Lurraldeko enpresak</li> <li>• Turismo enpresak eta bidaia agentzia handizkariak</li> <li>• Bestelako eragile pribatu batzuk</li> </ul>

Azkenik, badaude beste batzuk baino lehentasun handiagoa duten ekintza batzuk; izan segurtasun arrazoiak direla tarteko, zer talderi zuzenduta dauden edo ezinbestekoa delako konpontzea. Lehentasuna izateak, ordea, ez du esan nahi proiektu edo ekintza hori lehenengo fasean egin daitekeenik. Batzuetan, zaila izaten da garatzea, eta epe espezifiko batzuk behar izaten ditu (legez finkatutako egutegi bati jarraituz), edo epe laburrera erabilgarri ez dauden baliabide batzuk behar direlako. Hiru lehentasun maila finkatu dira:

**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

<b>Tokiko kirol sistemaren eragile dinamizatzailleak</b>	
★	Lehentasun txikia
★ ★	Lehentasun ertaina
★ ★ ★	Lehentasun handia

Proiektuak definitzeko eta aintzat hartzeko ezaugarriak definitu ostean, horiek garatu behar izaten dira, ildo estrategiko eta lan programa bakoitzerako.

Nabarmentzekoa da kirolaren zeharkakotasunaren eraginez ildo eta programa desberdinetan antzeko proiektu edo/eta ekintza batzuk izaten direla, aldi berean hainbat kontzeptu landu baitaitezke.



**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

**3.2. A ildo estrategikoaren garapena. Bizitza osorako jarduera fisikoaren eta kirolaren eskaintza sustatzea**

<b>A ildo estrategikoa</b> <b>Bizitza osorako jarduera fisikoaren eta kirolaren eskaintza sustatzea</b>	
<b>Lan programa</b>	<b>Proiektuak</b>
<b>A1. Eskola adineko kalitatezko kirol eredia</b>	A.1.1. Eskola adineko biztanleen eskaerak eta premiak identifikatzea
	A.1.2. Kirola eta ohitura osasungarriak sustatzeko eskola programa
	A.1.3. Erakundeekiko lana, kirol mailan eredu pedagogiko parekidea eta irisgarria finkatzeko
<b>A2. Nerabezaroan eta gaztaroan kirola egiten jarraitzea</b>	A.2.1. Nerabeen eta gazteen eskaerak eta premiak identifikatzea
	A.2.2. Osasunarekin eta aisialdiarekin lotutako eta lehiarako ez den kirolari egokitutako eskaintza sortzea
	A.2.3. Espazio eta jardueretarako harpidetza berezi bat sortzea gazteentzat
<b>A3. Kirolerako irisgarritasuna bermatzea</b>	A.3.1. Udalaren laguntza eta baliabideen sistema berraztertzea
	A.3.2. Talde espezifikoentzako kirol programak diseinatzea
	A.3.3. Sarbide libreko doako espazioak sortzea eta sustatzea
<b>A4. Eskaintza herritarren zahartze joerara egokitzea</b>	A.4.1. Adineko pertsonentzako programen eskaintza berrikustea eta ugaltzea
	A.4.2. Hurbileko zentroetan eskaintza espezifikoa sortzea
	A.4.3. Udalaren sail espezifikoarekin zeharka lan egitea, kirola egiten duten pertsonak erakartzeko

**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

Zenbakia	Ildo estrategikoa		
A.1.1.	<b>A. Bizitza osorako jarduera fisikoaren eta kirolaren eskaintza sustatzea</b>		
	<b>Lan programa</b>		
	<b>A.1. Eskola adineko kalitatezko kirol eredia</b>		
	<b>Proiektua</b>		
	<b>A.1.1. Eskola adineko biztanleen eskaerak eta premiak identifikatzea</b>		
<b>Deskribapena</b>			
<p>Datu kuantitatiboak eta kualitatiboak biltzea, eskola adineko biztanleen eskaera espezifikoa zehazteko, hainbat etapatan. Betiere, generoa, jatorria eta jarduera fisikoa egiteko ohiturak edo ez egiteko arrazoiak kontuan izanda. Datu bilketa horri esker, halaber, eskola adineko kirolaren eta jarduera fisikoaren adierazleak sortu ahal izango dira, denbora jakin baten buruan eguneratu daitezkeenak; betiere, bere bilakaera eta abiarazitako programen arrakasta ebaluatzeko moduan.</p>			
<b>Eragile dinamizatzailak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hezkuntza Saila</li> <li>• Gazteria Saila</li> <li>• Berdintasun Saila</li> <li>• Kirol klubak eta erakundeak</li> <li>• Gizarte entitateak</li> </ul>			
<b>Ekintza zehatzen adibidea</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kirol ohiturei eta bizimodu estiloari buruzko inkesta udalerriko ikastetxe guztiei.</li> <li>• Talde dinamikak ikasleekin eta euren familiekin.</li> <li>• Talde dinamikak eta lan saioak heziketa fisikoko irakasleekin, eskola kirola antolatzen duten eragileekin, etab.</li> </ul>			
<b>Printzipio gidariak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Parekidetasuna eta irisgarritasuna</li> </ul>			
<b>Egikaritze faseak</b>			
1. fasea: 2018-2020	2. fasea: 2021-2023	3. fasea: 2024-2027	
<b>Kostua</b>			
Txikia	Ertaina	Handia	
<b>Lehentasuna</b>			
★	★★	★★★	

**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

Zenbakia	Ildo estrategikoa		
<b>A.1.2.</b>	<b>A. Bizitza osorako jarduera fisikoaren eta kirolaren eskaintza sustatzea</b>		
	Lan programa		
	A.1. Eskola adineko kalitatezko kirol eredua		
	Proiektua		
	A.1.2. Kirola eta ohitura osasungarriak sustatzeko eskola programa		
Deskribapena			
<p>Eskola orduan jarduera fisikoa eta kirola sustatzeko programa bat diseinatzea, hainbat eragilek parte hartzen dutela, kirola bere zeharkakotasun osoan landu ahal izateko: osasuna hobetzeko tresna gisa, balioen eta taldeko lanaren sustatzaile gisa, integraziorako tresna gisa... Genero ikuspegia ere jaso beharko du, bai eta gutxienentzako kirolen edo beste herrialde batzuetatik datozenentzako kirolen proposamenak ere.</p>			
Eragile dinamizatzaileak			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hezkuntza Saila</li> <li>• Gazteria Saila</li> <li>• Berdintasun Saila</li> <li>• Euskara Saila</li> <li>• Osakidetza</li> </ul>			
Ekintza zehatzen adibidea			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikasturte bakoitzean, eskola orduen baitan, prestakuntza praktiko eta teorikorako kirol jardunaldi bat egitea.</li> <li>• Kluben erakustaldiak ikastetxeetan; bereziki, gutxien kirolenak.</li> <li>• Eskolako espazioak egokitzea (esaterako, jolastoki aktiboak), eta mugikortasun iraunkorra sustatzea.</li> </ul>			
Printzipio gidariak			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Parekidetasuna, irisgarritasuna eta erantzunkidetasuna</li> </ul>			
Egikaritze faseak			
1. fasea: 2018-2020	2. fasea: 2021-2023	3. fasea: 2024-2027	
Kostua			
Txikia	Ertaina	Handia	
Lehentasuna			
★	★★	★★★	

**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

Zenbakia	Ildo estrategikoa		
A.1.3.	<b>A. Bizitza osorako jarduera fisikoaren eta kirolaren eskaintza sustatzea</b>		
	<b>Lan programa</b>		
	<b>A.1. Eskola adineko kalitatezko kirol eredu</b>		
	<b>Proiektua</b>		
	<b>A.1.3. Erakundeekiko lana, kirol mailan eredu pedagogiko parekidea eta irisgarria finkatzeko</b>		
<b>Deskribapena</b>			
<p>LEKek, Udalak eta erakundeek elkarrekin lan egitea, eskola kirolaren ezaugarriak eta kirol eragile bakoitzaren partaidetza definitzeko, eta eboluzio etapa bakoitzerako kalitate pedagogikoko estandar batzuk sortzea. Emakumeen kirola sustatuko da, bai eta kirolerako irisgarritasuna eta atxikipena bermatzeko estrategiak ere.</p>			
<b>Eragile dinamizatzaileak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kirol klubak eta erakundeak</li> <li>• Gizarte entitateak</li> <li>• Hezkuntza Saila</li> <li>• Euskara Saila</li> <li>• Berdintasun Saila</li> </ul>			
<b>Ekintza zehatzen adibidea</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kirolaren Gutun Etiko bat edo eskola kirolaren kalitate zigilu bat ezartzea, kirol erakundeek bete beharreko hainbat baldintzarekin.</li> <li>• Kirol klubei ohiko kirol eskaintza eskualdatzea, eskola kirolean lehia daitezen; eta ikastetxeetan lehiarakoa ez den beste kirol eskaintza bat sortzea.</li> <li>• Erakundeek kirol plan eta plan pedagogiko bat eskatzea, funtsezko ezaugarri gisa emakumeen kirola sustatzea izanda, Udalaren laguntza ekonomikoak jasotzeko.</li> </ul>			
<b>Printzipio gidariak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Parekidetasuna, irisgarritasuna eta erantzunkidetasuna</li> </ul>			
<b>Egikaritze faseak</b>			
1. fasea: 2018-2020	2. fasea: 2021-2023	3. fasea: 2024-2027	
<b>Kostua</b>			
Txikia	Ertaina	Handia	
<b>Lehentasuna</b>			
★	★★	★★★	

**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

Zenbakia	Ildo estrategikoa		
<b>A.2.1.</b>	<b>A. Bizitza osorako jarduera fisikoaren eta kirolaren eskaintza sustatzea</b>		
	Lan programa		
	A.2. Nerabezaroen eta gaztaroan kirola egiten jarraitzea		
	Proiektua		
	A.2.1. Nerabeen eta gazteen eskaerak eta premiak identifikatzea		
Deskribapena			
<p>Datu kuantitatiboak eta kualitatiboak biltzea, nerabeen eta gazteen eskaera espezifikoak zehazteko. Betiere, generoa, jatorria eta jarduera fisikoa egiteko ohiturak edo ez egiteko arrazoiak kontuan izanda. Bereziki sasoi horretan uzten zaio kirola egiteari; horregatik, garrantzitsua da talde honek harremana duen gainerako eragileen laguntza ere izatea, nola datuak biltzeko, hala jarduerak sustatzeko. Garrantzitsua da, halaber, komunikazio bide on bat aukeratzea, eta hizkuntza egokia erabiltzea, kontuan izanik gazteak euren erabakiak hartzen hasten diren sasoiak dela.</p>			
Eragile dinamizatzaileak			
<ul style="list-style-type: none"> <li style="display: inline-block; width: 45%;">• Gazteria Saila</li> <li style="display: inline-block; width: 45%;">• Berdintasun Saila</li> </ul>			
Ekintza zehatzen adibidea			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erdi mailako zikloetako prestakuntza zentro eta institutuetan kirol ohiturei buruzko inkestak egitea.</li> <li>• Gazteria Saitetik sustatuta, ohiturei, motibazioei... buruzko inkesta bat egitea sarean.</li> <li>• Talde dinamikak eta lan saioak, nerabe eta gazteekin.</li> </ul>			
Printzipio gidariak			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Parekidetasuna eta irisgarritasuna.</li> </ul>			
Egikaritze faseak			
1. fasea: 2018-2020	2. fasea: 2021-2023	3. fasea: 2024-2027	
Kostua			
Txikia	Ertaina	Handia	
Lehentasuna			
★	★★	★★★	

**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

Zenbakia	Ildo estrategikoa		
<b>A.2.2.</b>	<b>A. Bizitza osorako jarduera fisikoaren eta kirolaren eskaintza sustatzea</b>		
	Lan programa		
	A.2. Nerabezaroen eta gaztaroan kirola egiten jarraitzea		
	Proiektua		
	A.2.2. Osasunarekin eta aisialdiarekin lotutako eta lehiarako ez den kirolari egokitutako eskaintza sortzea		
<b>Deskribapena</b>			
<p>Adin talde honentzat gaur egun dagoen eskaintza sustatu eta horri jarraipena egiteaz gainera, garrantzitsua da aukera alternatibo bat sortzea, lehiarako kirol federatua egin nahi ez dutenentzat edo eskola egutegiari egokituko zaion eskaintza malguago eta jolaserakoagoa behar dutenentzat. Talde honek eskaintzaren diseinuan bertan parte hartzea garrantzitsua da, gerora izango duen partaidetzarako eta hedapenerako.</p>			
<b>Eragile dinamizatzaileak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berdintasun Saila</li> <li>• Kirol klubak eta erakundeak</li> <li>• Gizarte entitateak</li> <li>• Ingurumen eta kultura arloko erakundeak</li> <li>• Tokiko merkataritza erakundeak</li> </ul>			
<b>Ekintza zehatzen adibidea</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Taldeak berak aldian behingo kirol jarduerak antolatzea, Kirol edo Gazteria Sailak gidaturik.</li> <li>• Kirol jarduera alternatiboak sustatzea eta eskola orduen barnean kirol ohitura osasungarriak sustatzea.</li> <li>• Asteburuetan gaueko lehiaketak antolatzea, jolaserako edo elkartasuna adierazteko.</li> <li>• Udalerriko kirol erakundeek jolas jarduerak antolatzea aldian behin.</li> </ul>			
<b>Printzipio gidariak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Parekidetasuna, irisgarritasuna eta erantzunkidetasuna</li> </ul>			
<b>Egikaritze faseak</b>			
1. fasea: 2018-2020	2. fasea: 2021-2023	3. fasea: 2024-2027	
<b>Kostua</b>			
Txikia	Ertaina	Handia	
<b>Lehentasuna</b>			
★	★★	★★★	

**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

Zenbakia	Ildo estrategikoa		
A.2.3.	A. Bizitza osorako jarduera fisikoaren eta kirolaren eskaintza sustatzea		
	Lan programa		
	A.2. Nerabezaroan eta gaztaroan kirola egiten jarraitzea		
	Proiektua		
	A.2.3. Espazio eta jardueretarako harpidetza berezi bat sortzea gazteentzat		
Deskribapena			
<p>Talde honentzako kirol eskaintza eta kuota motak Udalaren kirol instalazioetara egokitzea, baita instalazio pribatuetan ere, talde jakin honi zuzendutako eskaintzarekin. Talde honentzat propio diseinatutako hiri espazioak ezartzea, taldekideak ibiltzen diren tokietan: parke sokadunak, barra parkeak, skate parka egiteko elementuak, enduro edo BMX zirkuituak, ping-pong mahaiak, etab.</p>			
Eragile dinamizatzaileak			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gazteria Saila</li> <li>• Udalerriko kirol zentro pribatuak</li> <li>• Kirol klubak eta erakundeak</li> <li>• Hirigintza Saila</li> </ul>			
Ekintza zehatzen adibidea			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erabilera libreko kirol elementuak ezartzea Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetatik, kirol ekipamenduetatik eta aisialdirako tokietatik hurbil.</li> <li>• Eskola ondorengo arratsaldeko lehenengo orduetan, gazteentzako kuota espezifikoa bat sortzea.</li> <li>• Gazteentzako ginkanak edo aldian behingo jarduerak antolatzea, jarduera fisikoa, aisialdia eta jolasa konbinatuz.</li> </ul>			
Printzipio gidariak			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Parekidetasuna, irisgarritasuna eta erantzunkidetasuna</li> </ul>			
Egikaritze faseak			
1. fasea: 2018-2020	2. fasea: 2021-2023	3. fasea: 2024-2027	
Kostua			
Txikia	Ertaina	Handia	
Lehentasuna			
★	★★	★★★	

**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

Zenbakia	Ildo estrategikoa		
A.3.1.	<b>A. Bizitza osorako jarduera fisikoaren eta kirolaren eskaintza sustatzea</b>		
	Lan programa		
	A.3. Kirolerako irisgarritasuna bermatzea		
	Proiektua		
	A.3.1. Udalaren laguntza eta baliabideen sistema berraztertzea		
<b>Deskribapena</b>			
<p>Udaleko beste sail batzuekin elkarlanean jardutea, udalerrian egiten den kirolari ematen zaion laguntza sistema berrikusteko; nola Udaletik zuzenean eskaintzen direnetan, hala beste eragile batzuek eskaintzen dituztenetan. Dauden baliabideak banatzeko eta babesteko proposamen baterako, beharrezkoa da udalerrian laguntza gaietan lehentasunak ezartzea (eskolako taldea, gizartean baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonak, adineko pertsonak, etab.). Interesgarritzat jo da hainbat sostengu metodo ezartzea, zuzeneko laguntza ekonomikoez harago.</p>			
<b>Eragile dinamizatzaileak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berdintasun Saila</li> <li>• Ongizate Saila</li> </ul>			
<b>Ekintza zehatzen adibidea</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Laguntzarako teknikari espezialistak ezartzea premia bereziak dauzkaten pertsonentzat.</li> <li>• Erabilgarri dauden baliabideak banatzeko, laguntza ekonomikoan lehentasunezkoak diren taldeei lehentasuna ematea.</li> <li>• Erakundeekin lanean jardutea, premia handiena duten familiei laguntza ekonomikoa emateko ekintzak gauzatzeko.</li> </ul>			
<b>Printzipio gidariak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Irisgarritasuna eta erantzunkidetasuna</li> </ul>			
<b>Egikaritze faseak</b>			
1. fasea: 2018-2020	2. fasea: 2021-2023	3. fasea: 2024-2027	
<b>Kostua</b>			
Txikia	Ertaina	Handia	
<b>Lehentasuna</b>			
★	★★	★★★	



**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

Zenbakia	Ildo estrategikoa		
A.3.2.	<b>A. Bizitza osorako jarduera fisikoaren eta kirolaren eskaintza sustatzea</b>		
	Lan programa		
	A.3. Kirolerako irisgarritasuna bermatzea		
	Proiektua		
	A.3.2. Kolektibo espezifikoentzako kirol programak diseinatzea		
<b>Deskribapena</b>			
<p>Gizartean hainbat kolektibo edo talde daude; batzuk estatikoagoak dira, eta beste batzuk dinamikoagoak, gizarte testuinguruaren edo garapen fasearen arabera. Bakoitzaren ezaugarriak bereziak dira; horregatik, beharrezkoa da horiek ezagutzea, talde bakoitzarentzat espezifikoak diren eskaintzak diseinatzeko. Baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko programak, haurdun dauden emakumeentzako programak, erditze ostean lehengoratzeko programak, aldian behingo osasun arazoak dituzten pertsonentzako programak, etab.</p>			
<b>Eragile dinamizatzaileak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li style="display: inline-block; width: 45%;">• Berdintasun Saila</li> <li style="display: inline-block; width: 45%;">• Ongizate Saila</li> </ul>			
<b>Ekintza zehatzen adibidea</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Haurdunaldirako eta erditze osterako kirol programak.</li> <li>• Bizkarreko patologietarako osasun eta kirol jarduerak, osasun zentroek sustatuta.</li> <li>• Kirol tradizio txikiko kulturetako emakumeak kirola egiten has daitezen baliagarriak diren kirol programak.</li> </ul>			
<b>Printzipio gidariak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Parekidetasuna, irisgarritasuna eta erantzunkidetasuna</li> </ul>			
<b>Egikaritze faseak</b>			
1. fasea: 2018-2020	2. fasea: 2021-2023	3. fasea: 2024-2027	
<b>Kostua</b>			
Txikia	Ertaina	Handia	
<b>Lehentasuna</b>			
★	★★	★★★	

**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

Zenbakia	Ildo estrategikoa		
A.3.3.	<b>A. Bizitza osorako jarduera fisikoaren eta kirolaren eskaintza sustatzea</b>		
	Lan programa		
	A.3. Kirolerako irisgarritasuna bermatzea		
	Proiektua		
	A.3.3. Sarbide libreko doako espazioak sortzea eta sustatzea		
<b>Deskribapena</b>			
<p>Udalerriko jarduera fisikoko parkeak eta osasun parkeak ugaritzea, lurralde osoan zehar, modu zuzenean, kirola doan eta modu librean egiteko aukera erraztuz. Interesgarritzat jo da espazio horiek dinamizatzeko ekintzak eta programak egitea, elementuak modu egokian erabil ditzaten.</p>			
<b>Eragile dinamizatzaileak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hirigintza Saila</li> <li>• Gazteria Saila</li> <li>• Berdintasun Saila</li> <li>• Obrak, Zerbitzuak, Mantentzea eta Auzoen Saila</li> </ul>			
<b>Ekintza zehatzen adibidea</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hiriko hainbat parketan fitness makina zinetikoak ezartzea.</li> <li>• Sarrera libreko kirol parke eta kiroldegiko pista txikiak ezartzea hiriko hainbat puntutan.</li> <li>• Espazio horietan talde espezifikoentzako doako jarduerak antolatzea, sustapenerako eta dinamizaziorako.</li> </ul>			
<b>Printzipio gidariak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Parekidetasuna eta irisgarritasuna.</li> </ul>			
<b>Egikaritze faseak</b>			
1. fasea: 2018-2020	2. fasea: 2021-2023	3. fasea: 2024-2027	
<b>Kostua</b>			
Txikia	Ertaina	Handia	
<b>Lehentasuna</b>			
★	★★	★★★	

**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

Zenbakia	Ildo estrategikoa
A.4.1.	<b>A. Bizitza osorako jarduera fisikoaren eta kirolaren eskaintza sustatzea</b>
	Lan programa
	A.4. Eskaintza herritarren zahartze joerara egokitzea
	Proiektua
	A.4.1. Adineko pertsonentzako programen eskaintza berrikustea eta ugaltzea

**Deskribapena**

65 urtetik gorako herriko biztanleen datuek erakusten dute biztanleria zahartzen ari dela, eta urteen joanarekin, joera hori handitzen joango dela. Hala, kontuan izan behar da herritar horietako gehienek kirol ohiturak barneratuta izango dituztela, eta gaur egungo eskaintzak ez duela estaliko espero den eskaera. Gaur egungo eskaera nahiko tradizionala da: oinez egin beharreko ibilaldiak eta gidatutako jarduerak. Adineko pertsona ugariaren kirol iragana kontuan izanda, pentsatzekoa da kirol jardun askotarikoagoa eta intentsitate handiagokoa eskatuko dutela gerora; horregatik, beharrezkoa da garatu beharreko proposamen berriak aztertzea. Oso garrantzitsutzat jotzen da, halaber, udalerriko osasun zentroyen lankidetzaz izatea, horiek ere jarduera fisikoa eta kirola egiteko joera sustatzeko adin horretakoen artean. Elkarrekin antola daitezke programak.

**Eragile dinamizatzaileak**

- Ongizate Saila
- Berdintsaun Saila
- Kirol klubak eta erakundeak
- Gizarte entitateak

**Ekintza zehatzen adibidea**

- Adineko pertsoneri (kirola egiten dutenak zein egonekoak) kirol ohiturei eta lehentasunei buruzko inkesta egitea.
- Talde honentzako aldiari behingo jardueren ziklo bat egitea.
- Kirol erakundeei babesa ematea, adineko pertsonentzako eskaintza sor dezaten edo daukatena aberats dezaten.

**Printzipio gidariak**

- Parekidetasuna, irisgarritasuna eta erantzunkidetasuna

**Egikaritze faseak**

1. fasea: 2018-2020

2. fasea: 2021-2023

3. fasea: 2024-2027

**Kostua**

Txikia

Ertaina

Handia

**Lehentasuna**

★

★★

★★★

**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

Zenbakia	Ildo estrategikoa		
<b>A.4.2.</b>	<b>A. Bizitza osorako jarduera fisikoaren eta kirolaren eskaintza sustatzea</b>		
	Lan programa		
	<b>A.4. Eskaintza herritarren zahartze joerara egokitzea</b>		
	Proiektua		
	<b>A.4.2. Hurbileko zentroetan eskaintza espezifikoa sortzea</b>		
<b>Deskribapena</b>			
<p>Adineko pertsonentzako gaur egun dagoen eskaintza kirol konplexuetan egiten da. Adineko pertsona askorentzat oztopoa izan liteke hori: izan prezioagatik, kokapen geografikoagatik edo soil-soilik deseroso sentitzeagatik hain instalazio handian. Beraz, proposatzen da adineko pertsonentzako jarduera eskaintza bat sortzea (soinketa arina, luzaketak, dantzak, etab.) gune intimo eta hurbilagokoetan; esaterako, zentro zibikoetako aretoetan, eskoletan edo pabiloietan. Bertan, ariketa fisikoa egiteaz gainera, osagai sozialago bat ere lortuko dute eta, era horretan, hirugarren adineko pertsonen premiak aseko dira, eta egoneko pertsonak erakarri ahal izango dira.</p>			
<b>Eragile dinamizatzaileak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ongizate Saila</li> <li>• Berdintsaun Saila</li> <li>• Kirol klubak eta erakundeak</li> <li>• Gizarte entitateak</li> </ul>			
<b>Ekintza zehatzen adibidea</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Adineko pertsonentzako jarduera fisikoko programa bat osatzea, gidatutako jarduerekin, hainbat zentroetan.</li> <li>• Kirol ekipamendu egokia ezartzea adineko pertsonentzako zentroetatik hurbil.</li> <li>• Adineko pertsonen talde txikientzat etxeko entrenamendu zerbitzu bat eskaintzea.</li> </ul>			
<b>Printzipio gidariak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Parekidetasuna, irisgarritasuna eta erantzunkidetasuna</li> </ul>			
<b>Egikaritze faseak</b>			
1. fasea: 2018-2020	2. fasea: 2021-2023	3. fasea: 2024-2027	
<b>Kostua</b>			
Txikia	Ertaina	Handia	
<b>Lehentasuna</b>			
★	★★	★★★	

**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

Zenbakia	Ildo estrategikoa		
A.4.3.	<b>A. Bizitza osorako jarduera fisikoaren eta kirolaren eskaintza sustatzea</b>		
	<b>Lan programa</b>		
	<b>A.4. Eskaintza herritarren zahartze joerara egokitzea</b>		
	<b>Proiektua</b>		
	<b>A.4.3. Udalaren sail espezifikoarekin zeharka lan egitea, kirola egiten duten pertsonak erakartzeko</b>		
<b>Deskribapena</b>			
<p>Nahiz eta hirugarren adinekoak geroz eta aktiboagoak izan, badira inolako ariketa fisikorik egiten ez dutenak. Komunikabide digitalak ez daude biztanleria sektore honetako kide guztien eskura; horregatik, ez dute jasotzen jarduera fisikoa egiteko dituzten aukera guztien berri.</p> <p>Gizarte Ongizate Sailarekin zeharkako lan bat egitea proposatzen da; zehazki, adineko pertsonen arloan. Helburua izango da hainbat bidetatik zabaltea jarduera fisikoa egitea zeinen garrantzitsua den dioen mezua, eta baita daukagun eskaintzaren berri ematea ere.</p>			
<b>Eragile dinamizatzaileak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ongizate Sails</li> </ul>			
<b>Ekintza zehatzen adibidea</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udalerriko osasun zentroetan aldiari behingo jarduera batzuk egitea.</li> <li>• Puntu txartel bat sortzea talde honetako kideentzat, hainbat jardueretan doako proba egin dezaten.</li> <li>• Bizimodu aktiboak dakartzan onurei buruzko informazio kanpainak.</li> </ul>			
<b>Printzipio gidariak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Parekidetasuna eta irisgarritasuna.</li> </ul>			
<b>Egikaritze faseak</b>			
1. fasea: 2018-2020	2. fasea: 2021-2023	3. fasea: 2024-2027	
<b>Kostua</b>			
Txikia	Ertaina	Handia	
<b>Lehentasuna</b>			
★	★★	★★★	

**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

**3.3. B ildo estrategikoaren garapena. Antolamendu eredua eta lankidetzaren egiturak dinamizatzea**

<b>B ildo estrategikoa</b> <b>Antolamendu eredua eta lankidetzaren egiturak dinamizatzea</b>	
<b>Lan programa</b>	<b>Proiektuak</b>
<b>B1. Antolamendu eredua eta kirol eragileen betekizuna zehaztea</b>	B.1.1. Kirol eragileek eta eragile dinamizatzaileek tokiko kirol sisteman duten betekizuna definitzeko identifikazioa, zehaztapena eta lana.
	B.1.2. Lankidetzan oinarritutako lan sistemak sortzea, proiektu espezifikoak garatzeko.
<b>B2. Elkarrekin elkarrekin sostengua ematea, kalitatezko kirola lortzeko</b>	B.2.1. Elkarrekin elkarrekin sinergiak identifikatzea eta baliabideak optimizatzea
	B.2.2. Kirol erakundeei sostengu bulego bat jartzea
	B.2.3. Kirol erakundeentzako prestakuntza programa
<b>B3. Arrasateko kirolaren eta jardueraren fisikoaren agente koadroa</b>	B.3.1. Kirolaren eta jardueraren fisikoaren agente koadroa diseinatzea eta abiaraztea Arrasaten
	B.3.2. Kirol arloan dauden premiak identifikatzeko eta horiei jarraipena egiteko sistema bat abiaraztea

**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

Zenbakia	Ildo estrategikoa		
<b>B.1.1.</b>	<b>B. Antolamendu eredu eta lankidetzaren egiturak dinamizatzea</b>		
	<b>Lan programa</b>		
	<b>B.1. Antolamendu eredu eta kirol eragileen betekizuna zehaztea</b>		
	<b>Proiektua</b>		
	<b>B.1.1. Kirol eragileek eta eragile dinamizatzaileek tokiko kirol sisteman duten betekizuna definitzeko identifikazioa, zehaztapena eta lana</b>		
<b>Deskribapena</b>			
<p>Kirol eragile bakoitzak udalerrian daukan betekizuna eta Udalak horietako bakoitzarekin izango duen harreman mota definitzea garrantzitsua da. Rolak zehaztearena lan zabala da. Besteak beste, Kirol Zerbitzuaren ekintza arloa eta bere lehentasunak zein izango diren definitzea, eta kirol erakundeek udalerriko kirol sisteman duten betekizuna eta bertan dituen erantzukizunak definitzea, bereziki Udalaren babesa jasotzen badute. Lan horren ondorioz, kirolaren stakeholderren mapa bat osatu ahal izango da Arrasaten eta, era horretan, argi eta garbi ikusi ahal izango da zein diren bakoitzaren jardun arlo zehatzak eta udalerriko kirolarekin duten harreman maila. Rolak zehaztean, garbi utzi behar da guztiek egin behar dutela lan kirol jardunean parekidetasuna eta irisgarritasuna sustatzeko, nork bere erantzukizuna onartuz.</p>			
<b>Eragile dinamizatzaileak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li style="display: inline-block; width: 45%;">• Berdintasun Saila</li> <li style="display: inline-block; width: 45%;">• Gizarte entitateak</li> <li style="display: inline-block; width: 45%;">• Kirol klubak eta erakundeak</li> <li style="display: inline-block; width: 45%;">• Gainerako udal sailak</li> <li style="display: inline-block; width: 45%;">• Zentro pribatuak</li> </ul>			
<b>Ekintza zehatzen adibidea</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lan mahaia hainbat eragilerekin, kirol eredu eta eragile bakoitzaren betekizuna zehazteko.</li> <li>• Elkarrizketak erakundeekin, erakunde gisa duten oinarrizko helburua eta udalerrian duten betekizuna zehazteko, eta beste arlo edo/eta konpromiso batzuk hartzeko duten aukera aztertzeke.</li> </ul>			
<b>Printzipio gidariak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erantzunkidetasuna</li> </ul>			
<b>Egikaritze faseak</b>			
1. fasea: 2018-2020	2. fasea: 2021-2023	3. fasea: 2024-2027	
<b>Kostua</b>			
Txikia	Ertaina	Handia	
<b>Lehentasuna</b>			
★	★★	★★★	

**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

Zenbakia	Ildo estrategikoa
<b>B.1.2.</b>	<b>B. Antolamendu eredua eta lankidetzaren egiturak dinamizatzea</b>
	<b>Lan programa</b>
	<b>B.1. Antolamendu eredua eta kirol eragileen betekizuna zehaztea</b>
	<b>Proiektua</b>
	<b>B.1.2. Lankidetzaren oinarritutako lan sistemak sortzea, proiektu espezifikoak garatzeko.</b>

**Deskribapena**

Eragile guztien artean lan modu koordinatu bat ezartzea garrantzitsua da proiektu eta ekintza espezifikoak behar bezala garatzeko; betiere, parte hartzaileen baliabideak modu eraginkorrean erabiliz. Topaketei balioa emateak, proiektuak garatzeak eta horiek ikusarazteak balio erantsia emango dio eragileek Udal Kirol Kontseiluan duten parte hartzeari, eta handitu egingo du horiek Arrasateko kirolarekin duten erantzukizun eta konpromiso maila.

**Eragile dinamizatzaileak**

- Proiektuen arabera zehaztu beharreko eragileak

**Ekintza zehatzen adibidea**

- Lan batzordeak, proiektu eta ekintza espezifikoak garatzeko.
- Konpromisoa duten kideentzat blog bat edo barne webgune bat sortzea, proiektuen aurrerapausoak koordinatzeko eta horien berri emateko.
- Egiten diren ekintzen berri ematea, parte hartzen duten gainerako eragileei ikusgarritasuna emanaz.

**Printzipio gidariak**

- Parekidetasuna, irisgarritasuna eta erantzunkidetasuna

**Egikaritze faseak**

1. fasea: 2018-2020	2. fasea: 2021-2023	3. fasea: 2024-2027
---------------------	---------------------	---------------------

**Kostua**

Txikia	Ertaina	Handia
--------	---------	--------

**Lehentasuna**

★	★★	★★★
---	----	-----



**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

Zenbakia	Ildo estrategikoa		
<b>B.2.1.</b>	<b>B. Antolamendu eredua eta lankidetzaren egiturak dinamizatzea</b>		
	<b>Lan programa</b>		
	<b>B.2. Elkartek elkarri laguntza ematea, kalitatezko kirola lortzeko</b>		
	<b>Proiektua</b>		
	<b>B.2.1. Elkartek elkarrekin sinergiak identifikatzea eta baliabideak optimizatzea</b>		
<b>Deskribapena</b>			
<p>Ahaleginak batzeko eta erakundeak arazko profesionalizazio eskakizunetara egokitzea errazteko, interesgarritzat jo da funtzionamendu hobea lortzeko ahaleginak batzeko egokiak izan daitezkeen hainbat alderdi identifikatzea. Alderdi horiek askotarikoak izan daitezke; esaterako, erakundeen artean gastuak partekatzea, Udaletik sostengu taldea eskaintzea...</p> <p>Dena den, garrantzitsua da sektoreak berak eskatzen duen eraldaketa premia onartzea erakundeek, eta euren baliabideak eta alderdi positiboak eskaintzea, tokiko kirol sistema hobetze aldera.</p>			
<b>Eragile dinamizatzaileak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kirol klubak eta erakundeak</li> </ul>			
<b>Ekintza zehatzen adibidea</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Talde dinamikak, premiak zehazteko eta tipologia arabera sailkatzeko.</li> <li>• Diru laguntza ekonomikoak ez diren beste sostengu modu batzuk aztertzea erakundeekin batera.</li> <li>• Diru laguntzen oinarriak berraztertzea eta baldintzak erakundeekin lantzea; betiere, udalek gaur egun duten araudia ezagutaraziz.</li> </ul>			
<b>Printzipio gidariak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erantzunkidetasuna</li> </ul>			
<b>Egikaritze faseak</b>			
1. fasea: 2018-2020	2. fasea: 2021-2023	3. fasea: 2024-2027	
<b>Kostua</b>			
Txikia	Ertaina	Handia	
<b>Lehentasuna</b>			
★	★★	★★★	

**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

Zenbakia	Ildo estrategikoa		
B.2.2.	B. Antolamendu eredua eta lankidetzaren egiturak dinamizatzea		
	Lan programa		
	B.2. Elkarte ehunari sostengua ematea, kalitatezko kirola lortzeko		
	Proiektua		
	B.2.2. Kirol erakundeei sostengu bulegoa jartzea		
<b>Deskribapena</b>			
<p>Kirol erakundeentzako sostengu bulego bat sortzeko aukera aztertzea proposatu da. Teknikari-administrari profila duen pertsona bat litzateke, erakundeei euren arau eta zerga betebeharrak egunean izaten lagunduko liekeena. Bulego hori baliagarria litzateke, halaber, espazioen zein instalazioen, lehiaketen eta premien koordinazio lana arintzeko, eta erakundeek biztanleei jakinarazpen bateratuak egiteko. Erakundeek ulertu behar dute bulego hori sostengu moduko bat izango dela, baina euren modu aktiboan parte hartu eta lagundu beharko dutela.</p>			
<b>Eragile dinamizatzaileak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kirol klubak eta erakundeak</li> </ul>			
<b>Ekintza zehatzen adibidea</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Administrazio teknikari bat kontratatzea, erakundeen buroraziari jarraipena egiteko eta diru laguntzen izapideak egiteko.</li> <li>• Erakunde guztientzako kudeaketa agentzia bakarra kontratatzea.</li> <li>• Erakundeen eskaintza eta emaitzak kirolarekin lotutako elkarte ehunaren komunikazio atari bakarraren bitartez jakinaraztea.</li> </ul>			
<b>Printzipio gidariak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Parekidetasuna, irisgarritasuna eta erantzunkidetasuna</li> </ul>			
<b>Egikaritze faseak</b>			
1. fasea: 2018-2020	2. fasea: 2021-2023	3. fasea: 2024-2027	
<b>Kostua</b>			
Txikia	Ertaina	Handia	
<b>Lehentasuna</b>			
★	★★	★★★	

**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

Zenbakia	Ildo estrategikoa		
<b>B.2.3.</b>	B. Antolamendu eredua eta lankidetzaren egiturak dinamizatzea		
	Lan programa		
	B.2. Elkarte ehunari euskarria ematea, kalitatezko kirola lortzeko		
	Proiektua		
	B.2.3. Kirol erakundeentzako prestakuntza programa		
Deskribapena			
<p>Kirol erakundeen etengabeko prestakuntza oso garrantzitsua da euren eraldaketarako eta profesionalizaziorako, merkatuaren eskaerekin bat etorriz. Maila guztietako prestakuntza programa bat sustatzea: nola zuzendaritza batzarrentzat, zuzendaritza eta administrazio karguentzat, kirol arloko langile teknikoentzat edo kirolarientzat. Hori garrantzitsua da gaur-gaurko erakunde indartsu eta konprometituak bermatzeko.</p>			
Eragile dinamizatzaileak			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gipuzkoako Foru Aldundia</li> <li>• Prestakuntza zentroak</li> <li>• Hezkuntza Saila</li> <li>• Gazteria Saila</li> <li>• Berdintasun Saila</li> <li>• Euskara Saila</li> <li>• Kirol klubak eta erakundeak</li> <li>• Gizarte entitateak</li> </ul>			
Ekintza zehatzen adibidea			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Parekidetasunean oinarritutako kirol eta komunikazio prestakuntzarako programa.</li> <li>• Irabazi-asmorik gabeko erakundeen kudeaketa ekonomikoari buruzko prestakuntza programa.</li> <li>• Prestakuntza tailer pedagogikoak eta balioak sustatzeko tailerrak.</li> </ul>			
Printzipio gidariak			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Parekidetasuna, irisgarritasuna eta erantzunkidetasuna</li> </ul>			
Egikaritze faseak			
1. fasea: 2018-2020	2. fasea: 2021-2023	3. fasea: 2024-2027	
Kostua			
Txikia	Ertaina	Handia	
Lehentasuna			
★	★★	★★★	

**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

Zenbakia	Ildo estrategikoa
<b>B.3.1.</b>	<b>B. Antolamendu eredua eta lankidetzaren egiturak dinamizatzea</b>
	<b>Lan programa</b>
	<b>B.3. Arrasateko kirolaren eta jarduera fisikoaren aginte koadroa</b>
	<b>Proiektua</b>
	<b>B.3.1. Kirolaren eta jarduera fisikoaren aginte koadroa diseinatzea eta abiaraztea Arrasaten</b>

**Deskribapena**

Erabakiak hartzeko eta egiten diren ekintzak balioesteko garrantzitsua da datu eta informazio baliagarriak izatea eskuen artean. Horregatik, kirolaren eta jarduera fisikoaren aginte koadro bateratu bat sortzea proposatzen da, kirolaren hainbat alderdiren egoerari eta bilakaerari buruzko adierazleak biltzeko. Proposatzen da arlo bakoitzak bere aginte koadroa edukitzea, datu garrantzitsuenen laburpenarekin. Hauek dira aginte koadroaren diseinua egitean kontuan hartu beharreko alderdi garrantzitsuenak: emakumeen jarduna, irisgarritasun sozial eta funtzionala, eskola kirola, taldeen parte hartzea, ekipamenduen erabilera, kontsumo eta mantentze datuak, datu ekonomikoak, etab.

**Eragile dinamizatzaileak**

- Behin koadroa definituta dagoenean, identifikatuko da zer eragilek eman beharko duten premiazko informazioa modu erregularrean, aginte koadroa osatzeko eguneratzeko.

**Ekintza zehatzen adibidea**

- Arlo bakoitzarentzat aginte koadro bateratu bat diseinatzea, eta aldagaiak eta kalkulu modua definitzea.
- Aginte koadroaren emaitza nagusiak urtero zabaltzea.
- Aginte koadroari jarraipena eginez, ekintzen eta proiektuen ebaluazio txostenak egitea.

**Printzipio gidariak**

- Parekidetasuna, irisgarritasuna eta erantzunkidetasuna

**Egikaritze faseak**

1. fasea: 2018-2020	2. fasea: 2021-2023	3. fasea: 2024-2027
---------------------	---------------------	---------------------

**Kostua**

Txikia	Ertaina	Handia
--------	---------	--------

**Lehentasuna**

★	★★	★★★
---	----	-----

**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

Zenbakia	Ildo estrategikoa		
<b>B.3.2.</b>	<b>B. Antolamendu eredua eta lankidetzaren egiturak dinamizatzea</b>		
	<b>Lan programa</b>		
	<b>B.3. Arrasateko kirolaren eta jarduera fisikoaren aginte koadroa</b>		
	<b>Proiektua</b>		
	<b>B.3.2. Kirol arloan dauden premiak identifikatzeko eta horiei jarraipena egiteko sistema bat abiaraztea</b>		
Deskribapena			
<p>Erabiltzaileek, erakundeek eta herritarrek, oro har, kirol ekipamendu eta espazioei eta kirol programei buruzko hobekuntza proposamenak, kezkak eta kezkek izaten dituzte. Horiek jakinarazteko moduak ematea garrantzitsua da Kirol Zerbitzutik etengabeko hobekuntzaren alde lan egiteko. Horregatik, herritarren eta erabiltzaileen ekarpenak biltzeko hainbat sistema sustatzea eta jakinaraztea proposatzen da. Gainera, jarraipen adierazleei eta mantentze planaren garapenari esker, kontuan hartzeko premia espezifikoak identifikatu ahal izango dira, izan jardueretan, izan kirol espazioen hobekuntzan.</p>			
Eragile dinamizatzaileak			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udaleko beste sail batzuk.</li> </ul>			
Ekintza zehatzaren adibidea			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kirol instalazioetan postontziak ezartzea.</li> <li>• Web orrian edo sare sozialetan atal bat gehitzea edo app bat prestatzea, proposamenak egiteko.</li> <li>• Kirol arlo guztietako premiak identifikatzeko urteko plan bat osatzea.</li> </ul>			
Printzipio gidariak			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erantzunkidetasuna</li> </ul>			
Egikaritze faseak			
1. fasea: 2018-2020	2. fasea: 2021-2023	3. fasea: 2024-2027	
Kostua			
Txikia	Ertaina	Handia	
Lehentasuna			
★	★★	★★★	

**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

**3.4. C ildo estrategikoaren garapena. Kirol ekipamenduak hobetzea**

<b>C ildo estrategikoa Kirol ekipamenduak hobetzea</b>	
<b>Lan programa</b>	<b>Proiektuak</b>
<b>C1. Kirol ekipamenduen berrikuntzak eta hobekuntzak</b>	C.1.1. Musakola berritzeko proiektua
	C.1.2. Ohiko kirol ekipamenduak hobetzeko inbertsioen plangintza.
	C.1.3. Ohiko instalazioak eta eskolako instalazioak hobetzea, erabilerara irekiago, irisgarriago eta parekideagoa izateko
	C.1.4. Kirolerako ez diren espazioak egokitzea, hurbileko eskaintza egiteko
<b>C2. Esku hartzeak hiri ingurunean eta ingurune naturalean</b>	C.2.1. Hiri nukleoan kirol espazioak zabaltzea, askotarikitzea eta deszentralizatzea
	C.2.2. Arrasateko hirigintza aktiboa sustatzea
	C.2.3. Ingurune naturaleko zirkuituak eta eskaintza hobetzea
	C.2.4. Hiri ingurunean eta ingurune naturalean kirol eskaintza digitalizatzea eta horren berri ematea
<b>C3. Instalazioen mantentze lana optimizatzeko jardunak</b>	C.3.1. Udalaren kirol instalazioak eta espazioak mantentzeko plana eguneratzea
	C.3.2. Kirol instalazioetan energia aurrezteko neurriak eta kontzientziazio kanpainak abiaraztea

**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

Zenbakia	Ildo estrategikoa		
<b>C.1.1.</b>	<b>C. Kirol ekipamenduak hobetzea</b>		
	<b>Lan programa</b>		
	<b>C.1. Kirol ekipamenduen berrikuntzak eta hobekuntzak</b>		
	<b>Proiektua</b>		
	<b>C.1.1. Musakola berritzeko proiektua</b>		
<b>Deskribapena</b>			
<p>Musakolako instalazioa da hiriko kirol puntu garrantzitsua, eta horixe da, era berean, kirol instalaziorik antzinakoa. Beharrezkoa da bertako espazioak eta zerbitzuak eguneratzea eta, bide beretik, eraikinak egituran duen arazo baten eraginez, goitik beherako berritze lana egitea. Beraz, kirol ekipamendua berriz diseinatzeko aukera bikaina da. Horretarako, kontuan hartu behar dira kirol joera berriak, eta kirol ikuspegiak gainera, bestelako ikuspegi batzuetan ere oinarritu behar dira diseinu lana egitean: parekidetasunaren ikuspegia, irisgarritasuna, hirigintza aktiboa, etab.</p> <p>Onartzen denetik zentro berria irekitzera bitarte hainbat urte pasa daitezke; izan ere, garapenerako ezinbestekoa da hainbat urrats egitea. Hala, horixe izango da, seguru asko, datozen urteotako ekintza ekonomikorik garestiena.</p>			
<b>Eragile dinamizatzaileak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hirigintza Saila</li> <li>• Berdintasun Saila</li> <li>• Zerbitzu ekonomikoak</li> <li>• Kirol klubak eta erakundeak</li> <li>• Gizarte entitateak</li> <li>• Herritarrak</li> </ul>			
<b>Ekintza zehatzen adibidea</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Arkitektura ideien lehiaketa, instalazio berrirako.</li> <li>• Herritarren partaidetza prozesua, instalazioetan hobekuntzak egiteko.</li> <li>• Lan saioak, hainbat erabilzaile talderekin, premiak zehazteko.</li> </ul>			
<b>Printzipio gidariak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Parekidetasuna, irisgarritasuna eta erantzunkidetasuna</li> </ul>			
<b>Egikaritze faseak</b>			
1. fasea: 2018-2020	2. fasea: 2021-2023	3. fasea: 2024-2027	
<b>Kostua</b>			
-10.000 €	-100.000 €	+ 100.000 €	
<b>Lehentasuna</b>			
★	★★	★★★	

**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

Zenbakia	Ildo estrategikoa
<b>C.1.2.</b>	<b>C. Kirol ekipamenduak hobetzea</b>
	<b>Lan programa</b>
	<b>C.1. Kirol ekipamenduen berrikuntzak eta hobekuntzak</b>
	<b>Proiektua</b>
	<b>C.1.2. Ohiko kirol ekipamenduak hobetzeko inbertsioen plangintza.</b>

**Deskribapena**

Partaidetza prozesuan proposamen ugari egin dira udalerriko kirol instalazio batzuk hobetzeko. Gainera, mantentze plana eguneratzean, instalazioak hobetzeko edo berrezartzeko jardunak identifikatuko dira. Kirol instalazioen mantentzeak eta hobekuntzak dakarren kostu handiak inbertsioen plangintza bat egitea eskatzen du, baliabideak modu egokian erabiltzeko, diruzaintzako premiak aurreikusteko, finantzaketa eta laguntza bilaketan lan egiteko eta ezustekoengatikoko gastuak minimizatzen. Plangintza hori epe ertain, labur eta luzera egitea proposatzen da, dagoeneko egindako proposamenei etekina ateratzeko; eta, betiere, talde guztien proposamenak biltzen ahaleginduz. Bestalde, plan estrategiko honen printzipio gidariak kontuan hartuz, beste udal sail eta tokiko eragile batzuek ere parte hartu beharko dute.

**Eragile dinamizatzaileak**

- Zerbitzu ekonomikoak
- Hirigintza Saila
- Osasun Saila
- Kirol klubak eta erakundeak
- Obrak, Zerbitzuak, Mantentzea eta Auzoen Saila
- Gizarte entitateak

**Ekintza zehatzen adibidea**

- Lan saioak gainerako udal sailekin, mugikortasunaren, parekidetasunaren, osasunaren eta hirigintza aktiboaren ikuspegitik premiak identifikatzeko.
- Talde dinamikak egitea, kirol instalazioen hainbat erabiltzailerekin.

**Printzipio gidariak**

- Parekidetasuna, irisgarritasuna eta erantzunkidetasuna

**Egikaritze faseak**

1. fasea: 2018-2020	2. fasea: 2021-2023	3. fasea: 2024-2027
<b>Kostua</b>		
-10.000 €	-100.000 €	+ 100.000 €*
-10.000 €		
★	★★	★★★



**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

Zenbakia	Ildo estrategikoa
<b>C.1.3.</b>	<b>C. Kirol ekipamenduak hobetzea</b>
	<b>Lan programa</b>
	<b>C.1. Kirol ekipamenduen berrikuntzak eta hobekuntzak</b>
	<b>Proiektua</b>
	<b>C.1.3. Ohiko instalazioak eta eskolako instalazioak hobetzea, erabilera irekiago, irisgarriago eta parekideagoa izateko</b>

**Deskribapena**

Eskaintza irisgarriagoa eduki ahal izateko hurbileko kirol espazioak izatearena partaidetza prozesuan behin eta berriz errepikatu den eskaera izan da. Ikastetxeak badira hurbileko zentroak, eta komenigarria litzateke horiek gehiago indartzea, eskolaz kanpoko ordutegian ere erabiltzeko, nola erakundeek erabiltzeko, hala biztanleei jarduera gidatuak eskaintzeko edo erabilera librea emateko; hala, jolastoki irekien erabilera bultzatu beharko litzateke. Espazio horiek hobetzea eta eskolaz kanpoko ordutegietan ere irekitzeko aukera kudeatzeko hitzarmenak egitea. Bestalde, ohiko instalazioak herritar guztiei irekitzearena ere erantzun beharreko eskaera bat da; betiere, kirol erakundeen eta eskola adineko kirolaren premiak aintzat hartuz.

**Eragile dinamizatzaileak**

- Hezkuntza Saila
- Ikastetxeak
- Hirigintza Saila
- Kirol klubak eta erakundeak

**Ekintza zehatzen adibidea**

- Eskola ordutik kanpo ere eskolako espazioen atezaintza, garbiketa eta dinamizazio zerbitzuetarako hitzarmenak.
- Kirol instalazioetan eta kanpoaldeetan erabilerarik ez duten espazioak espazio aktibo bihurtzea.

**Printzipio gidariak**

- Parekidetasuna, irisgarritasuna eta erantzunkidetasuna

**Egikaritze faseak**

1. fasea: 2018-2020	2. fasea: 2021-2023	3. fasea: 2024-2027
---------------------	---------------------	---------------------

**Kostua**

-10.000 €	-100.000 €	+ 100.000 €
-----------	------------	-------------

**Lehentasuna**

★	★★	★★★
---	----	-----

**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

Zenbakia	Ildo estrategikoa		
<b>C.1.4.</b>	<b>C. Kirol ekipamenduak hobetzea</b>		
	<b>Lan programa</b>		
	<b>C.1. Kirol ekipamenduen berrikuntzak eta hobekuntzak</b>		
	<b>Proiektua</b>		
	<b>C.1.4. Kirolerako ez diren espazioak egokitzea, hurbileko eskaintza egiteko</b>		
Deskribapena			
<p>Kirol jarduera gidatu batzuk egiteko (batez ere, intentsitate txikikoak) ez da beharrezkoa kirol ekipamendu handirik. Hurbileko udal espazioak identifikatzea proposatu da, eskaintza irisgarri eta hurbilagoko bat egin ahal izateko, batez ere, adineko pertsonen, emakumeen eta eskola adineko txikienei. Era horretako espazioak kirol jardueran hastea sustatzeko erabiliko dira bereziki; eta, gerora, konplexutasun edo intentsitate handiagoko kirol jardueretara jauzi egitean, espazio espezializatuagoak beharko dira.</p>			
Eragile dinamizatzaileak			
<ul style="list-style-type: none"> <li style="display: inline-block; width: 45%;">• Gazteria Saila</li> <li style="display: inline-block; width: 45%;">• Ongizate Saila</li> </ul>			
Ekintza zehatzen adibidea			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Jarduera gidatuak egiteko tamaina egokiko aretoak identifikatzea; zoladura, tenperatura eta material egokia dutenak.</li> <li>• Hainbat espazioren erabilera aztertzea; esaterako, Monterroneko eszenatokia, Arrasate Musikalen libre geratuko den espazioa, etab.</li> </ul>			
Printzipio gidariak			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Parekidetasuna, irisgarritasuna eta erantzunkidetasuna</li> </ul>			
Egikaritze faseak			
1. fasea: 2018-2020	2. fasea: 2021-2023	3. fasea: 2024-2027	
Kostua			
-10.000 €	-100.000 €	+ 100.000 €	
Lehentasuna			
★	★★	★★★	

**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

Zenbakia	Ildo estrategikoa		
<b>C.2.1.</b>	<b>C. Kirol ekipamenduak hobetzea</b>		
	<b>Lan programa</b>		
	<b>C.2. Esku hartzeak hiri ingurunean eta ingurune naturalean</b>		
	<b>Proiektua</b>		
	<b>C.2.1. Kirol espazioak zabaltzea, askotarikitzea eta deszentralizatzea</b>		
Deskribapena			
<p>Biztanle talde guztiak doan sartzeko moduko espazioak bermatzea garrantzitsua da jarduera fisikorako eta kirolerako sarbide oztopoak murrizteko. Gainera, gomendagarria da horiek hurbilekoak izatea, bai eta jakinarazpen eta dinamizazio ekintzak gauzatzea ere, herritar guztiak ezagut ditzaten. Arrasateko biztanleria nukleo guztietan ekipamenduak instalatzea proposatzen da, banaketa geografikoa eta demografikoa kontuan hartuz, talde bakoitzerako erakargarriak diren ekipamenduekin (gazteak, helduak, adinekoak, haurrentzako parke aktiboak, etab.).</p>			
Eragile dinamizatzaileak			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hirigintza Saila</li> <li>• Ongizate Saila</li> <li>• Gazteria Saila</li> <li>• Zerbitzu ekonomikoak</li> </ul>			
Ekintza zehatzen adibidea			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Adinen araberako banaketa demografikoaren eta horiekin lotutako ekipamenduen analisia, gune estrategikoetan osasun parkeak jartzeko.</li> <li>• Adin guztietarako pertsonentzako kirol altzariak ezartzea udalerriko parke nagusietan, bai eta ingurune naturaleko zirkuituetatik hurbil ere.</li> </ul>			
Printzipio gidariak			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Parekidetasuna, irisgarritasuna eta erantzunkidetasuna</li> </ul>			
Egikaritze faseak			
1. fasea: 2018-2020	2. fasea: 2021-2023	3. fasea: 2024-2027	
Kostua			
-10.000 €	-100.000 €	+ 100.000 €	
Lehentasuna			
★	★★	★★★	

**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

Zenbakia	Ildo estrategikoa		
<b>C.2.2.</b>	<b>C. Kirol ekipamenduak hobetzea</b>		
	<b>Lan programa</b>		
	<b>C.2. Esku hartzeak hiri ingurunean eta ingurune naturalean</b>		
	<b>Proiektua</b>		
	<b>C.2.2. Arrasateko hirigintza aktiboa sustatzea</b>		
Deskribapena			
<p>Hirigintza aktiboa izateak bizi ohitura aktiboak hartzea dakar berarekin. Bidegorriak, oinezkoentzako bideak, eskolarako bide seguruak, etab. ezarri gero, herritarrei aukera ematen zaie joan-etorriak motorrik gabeko ibilgailuekin egiteko, modu seguruan; eta, horrenbestez, autoa gutxiago erabiltzeko. Garrantzitsua da ekintza horiei sostengu elementuak jartzea; esaterako, bizikletak edo patineteak aparkatzeko tokiak. Gainera, hirigintza osaerak berak aukera ematen du hainbat intentsitatetako joan-etorri aktiboak sustatzeko. Hiri eta geografia elementu batzuk erakargarriagoak egingo bagenitu, herritarrek erabilera handiagoa emango liekete.</p>			
Eragile dinamizatzaileak			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hirigintza Saila</li> <li>• Zerbitzu ekonomikoak</li> <li>• Turismo Saila</li> <li>• Gipuzkoako Foru Aldundia</li> </ul>			
Ekintza zehatzen adibidea			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hiriko bidegorria eta oinezkoentzako bidea zabaltzea eta hobetzea.</li> <li>• Eskaileretan, igoera eta jaitsieretan, hiri ibilbideetan... mailakatzeko elementuak margotzea.</li> <li>• Hiri espazio eta plaza irekiak sortzea, jarduera fisikoa egitea sustatuko duten elementuekin.</li> </ul>			
Printzipio gidariak			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Parekidetasuna, irisgarritasuna eta erantzunkidetasuna</li> </ul>			
Egikaritze faseak			
1. fasea: 2018-2020	2. fasea: 2021-2023	3. fasea: 2024-2027	
Kostua			
-10.000 €	-100.000 €	+ 100.000 €	
Lehentasuna			
★	★★	★★★	

**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

Zenbakia	Ildo estrategikoa		
<b>C.2.3.</b>	<b>C. Kirol ekipamenduak hobetzea</b>		
	<b>Lan programa</b>		
	<b>C.2. Esku hartzeak hiri ingurunean eta ingurune naturalean</b>		
	<b>Proiektua</b>		
	<b>C.2.3. Ingurune naturaleko zirkuituak eta eskaintza hobetzea</b>		
Deskribapena			
<p>Arrasate hiriaren inguruko aberastasunari esker, naturaren ahalmenari etekin handiagoa atera diezaiokegu, lehendik dauden zirkuituak hobetuz eta zabalduz. BTT zirkuitu berriak, mendi ibilietarako zirkuituak, orientabiderako zirkuitu finko bat, etab. Horiek dira udalerriko ingurune naturalean egin daitezkeen jardunetako zenbait. Eta baita horien komunikazio hobea ere, seinaleekin, diptikoekin, GPS trackekin, sakelako telefonoaren aplikazioak erabiliz, etab. Espazio horiek aldiari behingo jarduerekin dinamizatzea (guztiak ezagutarazteko) modu ona litzateke herritarrek herri inguruari buruzko ezagutza handiagoa izan dezaten. Egokitzat jo da zerbitzu osagarriak ezartzea; hala nola bizikleta garbitzeko eta bizikletentzako tresnetarako zentro bat, ur guneak, bizikleta zein patineteentzako aparkalekuak, etab. Eskaintza hori indartzea funtsezkoa da turismo aktiboa eta natur turismoa sustatzeko.</p>			
Eragile dinamizatzaileak			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hirigintza Saila</li> <li>• Turismo Saila</li> <li>• Gipuzkoako Foru Aldundia</li> </ul>			
Ekintza zehatzen adibidea			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• BTT, enduro zein BMX zirkuituak eta horien sostenguak izango diren espazioak sortzea.</li> <li>• Orientabiderako zirkuitu finko bat sortzea, familia osoarentzat.</li> </ul>			
Printzipio gidariak			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Parekidetasuna, irisgarritasuna eta erantzunkidetasuna</li> </ul>			
Egikaritze faseak			
1. fasea: 2018-2020	2. fasea: 2021-2023	3. fasea: 2024-2027	
Kostua			
-10.000 €	-100.000 €	+ 100.000 €	
Lehentasuna			
★	★★	★★★	

**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

Zenbakia	Ildo estrategikoa		
<b>C.2.4.</b>	<b>C. Kirol ekipamenduak hobetzea</b>		
	<b>Lan programa</b>		
	<b>C.2. Esku hartzeak hiri ingurunean eta ingurune naturalean</b>		
	<b>Proiektua</b>		
	<b>C.2.4. Hiri ingurunean eta ingurune naturalean kirol eskaintza digitalizatzea eta horren berri ematea</b>		
Deskribapena			
<p>Teknologiak eskaintzen dituen aukerei etekina ateraz, sakelako telefonoetarako aplikazio bat osatzea eta programatzea proposatu da. Bertan, aire zabaleko kirol espazioei buruzko informazioa bilduko litzateke; bai hiri inguruneakoak, bai ingurune naturalekoak. Era horretan, erabiltzaileak une oro izango du kirol toki eta espazio guztien berri, ohiko instalazioetatik kanpo baina udalerrian bertan kirola egin ahal izateko. Era berean, beharrezkotzat jo da erabiltzen dituzten pertsonen euren artean elkarerraginean jarduteko aukera izatea. Beraz, sakelako telefonoko aplikazio honen bidez kirola egitera taldean joateko gera daitezke.</p>			
Eragile dinamizatzailleak			
<ul style="list-style-type: none"> <li style="display: inline-block; width: 45%;">• Turismo Saila</li> <li style="display: inline-block; width: 45%;">• Hirigintza Saila</li> </ul>			
Ekintza zehatzen adibidea			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ingurune naturaleko bideen eta espazioen eskaintzaren aplikazioa sortzea.</li> <li>• Trackak gehitzea, Udalaren webgunean eta Turismo Sailaren webgunean bideak deskargatu ahal izateko.</li> </ul>			
Printzipio gidariak			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Parekidetasuna, irisgarritasuna eta erantzunkidetasuna</li> </ul>			
Egikaritze faseak			
1. fasea: 2018-2020	2. fasea: 2021-2023	3. fasea: 2024-2027	
Kostua			
-10.000 €	-100.000 €	+ 100.000 €	
Lehentasuna			
★	★★	★★★	

**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

Zenbakia	Ildo estrategikoa
<b>C.3.1.</b>	<b>C. Kirol ekipamenduak hobetzea</b>
	<b>Lan programa</b>
	<b>C.3. Instalazioen mantentze lana optimizatzeko jardunak</b>
	<b>Proiektua</b>
	<b>C.3.1. Udalaren kirol instalazioak eta espazioak mantentzeko plana eguneratzea</b>

**Deskribapena**

Arrasateko kirol ekipamendu askok eta askok duten antzintasuna kontuan hartuta, oso garrantzitsua da mantentze eta garbiketa plan egoki bat egitea. Horiek berrikusi eta eguneratu beharko dira, gaur egungo araudi eta premiekin bat etorrita. Hori benetan da garrantzitsua erabiltzaileak zerbitzu hobea izan dezan eta, horrenbestez, bere gogobetetzea hobea izan dadin. Gainera, komenigarritzat jo da mantentze eta kontserbazio adierazleak dituen tresna bat sortzea, horien egoerari jarraipena eta kontrola egin ahal izateko eta, era horretan, zailtasunak dituztenak eta ahaleginen behar handienekoak zein diren hautemateko. Era berean, adierazleei esker, izan litezkeen matxurak aurreikus daitezke, edo/eta beharrezkoak diren ordezkapenak egin.

**Eragile dinamizatzaileak**

- Kirol klubak eta erakundeak
- Zerbitzu ekonomikoak
- Obrak, Zerbitzuak, Mantentzea eta Auzoen Saila

**Ekintza zehatzen adibidea**

- Udalaren kirol instalazio guztien araudia betetzen ote den berrikustea.
- Udal instalazioetako elementu tekniko eta makina guztien balioespena egitea eta aldatu beharreko unea aurreikustea.
- Pixka bat margotuta, materialak ordezkatuta, etab. jardun txikien bidez moderniza daitezkeen espazioak eta elementuak identifikatzea.

**Printzipio gidariak**

- Parekidetasuna, irisgarritasuna eta erantzunkidetasuna

**Egikaritze faseak**

1. fasea: 2018-2020	2. fasea: 2021-2023	3. fasea: 2024-2027
<b>Kostua</b>		
-10.000 €	-100.000 €	+ 100.000 €*
-10.000 €		
★	★★	★★★

**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

Zenbakia	Ildo estrategikoa		
<b>C.3.2.</b>	<b>C. Kirol ekipamenduak hobetzea</b>		
	<b>Lan programa</b>		
	<b>C.3. Instalazioen mantentze lana optimizatzeko jardunak</b>		
	<b>Proiektua</b>		
	<b>C.3.2. Kirol instalazioetan energia aurrezteko neurriak eta kontzientzia-kanpainak abiaraztea</b>		
<b>Deskribapena</b>			
<p>Kirol instalazioen mantentze eta kontsumoak Udalaren aurrekontuaren oso zati garrantzitsua da. Garrantzitsua da gastua kontrolatzea (energiaren arloan eraginkorrak izanda), bai eta erabiltzaileei erabilera ona emateko kontzientzia harraraztea ere. Instalazioen energia funtzionamendu hobea ekar dezaketen jardunak identifikatzea da egin beharreko lehen urratsa, instalazio eraginkorrago eta iraunkorrago batzuk edukitzeko.</p>			
<b>Eragile dinamizatzaileak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li style="display: inline-block; width: 45%;">• Ingurumen Saila</li> <li style="display: inline-block; width: 45%;">• Kirol klubak eta erakundeak</li> </ul>			
<b>Ekintza zehatzen adibidea</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kirol instalazioetako kontsumoen sentsibilizazio kanpainak.</li> <li>• Erakundeei jakinaraztea zein den kirol denboraldian zehar kirol instalazioen erabileratik eratorritako kontsumoaren kostua.</li> <li>• Kirol instalazioetako energia aurrezpenaren azterketa bat egitea.</li> </ul>			
<b>Printzipio gidariak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Parekidetasuna, irisgarritasuna eta erantzunkidetasuna</li> </ul>			
<b>Egikaritze faseak</b>			
1. fasea: 2018-2020	2. fasea: 2021-2023	3. fasea: 2024-2027	
-10.000 €			
-10.000 €	-100.000 €	+ 100.000 €	
<b>Lehentasuna</b>			
★	★★	★★★	



**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

**3.5. D ildo estrategikoaren garapena. Kirol turismo arduratsua sustatzea**

<b>D ildo estrategikoa</b> <b>Kirol turismo arduratsua sustatzea</b>	
<b>Lan programa</b>	<b>Proiektuak</b>
<b>D1. Hainbat eragile espezializaturekin lankidetzatza lana</b>	D.1.1. Kirol turismoa garatzeko lan batzordeak sortzea.
	D.1.2. Bidaia agentzia handizkari espezializatuekin harremanetan jartzea
<b>D2. Turismoan eragin handia izango duten ekitaldi sortaileak antolatzea</b>	D.2.1. Udalerrian kirol ekitaldien plan bat zehaztea, jarduera ekonomikoa edo turistikoa sortzeko ahalmena duten ekitaldiak identifikatuz
	D.2.2. Jardunbide egokien eta protokoloen eskuliburu bat egitea, kirol ekitaldi arduratsuak antolatzeko
<b>D3. Komunikazioa eta sustapen ekintzak hobetzea</b>	D.3.1. Arrasateko kirol eskaintzari buruzko app bat, webgune bat eta korporazio irudi bat sortzea
	D.3.2 Kirola eta jarduera fisikoa eta horien kirol eta turismo eskaintza dinamizatzeko sustapen kanpainak egitea

**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

Zenbakia	Ildo estrategikoa
D.1.1	D. Kirol turismo arduratsua sustatzea
	Lan programa
	D.1. Hainbat eragile espezializaturekin lankidetzatza lana
	Proiektua
	D.1.1. Kirol turismoa garatzeko lan batzordeak sortzea.

**Deskribapena**

Kirol turismoaren hainbat arlotan lan batzordeak sortzea proposatu da. Batzorde horien buru sektoreko aditu batzuk izango lirateke. Batzorde horiek eztabaida eta gogoetarako talde egonkorak izango lirateke, non proposatu eta landuko lituzketen batzorde bakoitzeko kideek hautemandako premien arabera gaiak. Hilean behin egingo lituzkete bilerak: irekiak, zerikusia duten eragile guztiek parte hartzeko moduan. Batzorde guztiek izango lukete funtzionamendu protokolo bat. Urtean behin lan memoria bat egin beharko litzateke, batzordeek denbora tarte horretan egindako jarduerak eta ekimenak biltzeko, eta urte osoko zereginaren balioespena egiteko.

**Eragile dinamizatzaileak**

- Turismo Saila
- Kirol klubak eta erakundeak
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Udalerriko kirol zentro pribatuak
- Turismo enpresak eta bidaia agentzia handizkariak

**Ekintza zehatzen adibidea**

- Lan saioak, landu nahi den kirol turismo mota eta haren ezaugarriak definitzeko.
- Eragile pribatuekin hitzarmenak egitea, kirol turismoa sustatzeko.
- Arrasateko kirol turismorako edo natur kirolerako irudi korporatibo espezifiko bat osatzea.

**Printzipio gidariak**

- Parekidetasuna, irisgarritasuna eta erantzunkidetasuna

**Egikaritze faseak**

1. fasea: 2018-2020	2. fasea: 2021-2023	3. fasea: 2024-2027
---------------------	---------------------	---------------------

**Kostua**

Txikia	Ertaina	Handia
--------	---------	--------

**Lehentasuna**

★	★★	★★★
---	----	-----

**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

Zenbakia	Ildo estrategikoa		
D.1.2	D. Kirol turismo arduratsua sustatzea		
	Lan programa		
	D.1. Hainbat eragile espezializaturekin lankidetzatza lana		
	Proiektua		
	D.1.2. Bidaia agentzia handizkari espezializatuarekin harremanetan jartzea		
<b>Deskribapena</b>			
<p>Natur turismoa da hiriko turismoa sustatzeko planean proposatu den lan ildoetako bat. Horregatik, garrantzitsua da, nahi den kirol turismoa behin landutakoan, bidaia agentzia handizkari edo enpresa espezializatuarekin harremanetan jartzea, eskaintzaren komunikazio on bat egiteko eta, era horretan, hartzaileak izan litezkeen pertsonekin modu eraginkorrean harremanetan jartzeko.</p>			
<b>Eragile dinamizatzaileak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Turismo Saila</li> <li>• Turismo enpresak eta bidaia agentzia handizkariak</li> </ul>			
<b>Ekintza zehatzen adibidea</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Turismo aktiboaren, natur turismoaren eta kirol turismoaren eragile turistiko, atari edo enpresa nagusiak identifikatzea.</li> <li>• Bultzatu nahi diren kirol edo jarduera fisiko moten federazioekin edo elkarteekin harremanetan jartzea.</li> </ul>			
<b>Printzipio gidariak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Parekidetasuna, irisgarritasuna eta erantzunkidetasuna</li> </ul>			
<b>Egikaritze faseak</b>			
1. fasea: 2018-2020	2. fasea: 2021-2023	3. fasea: 2024-2027	
<b>Kostua</b>			
Txikia	Ertaina	Handia	
<b>Lehentasuna</b>			
★	★★	★★★	

**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

Zenbakia	Ildo estrategikoa
<b>D.2.1</b>	<b>D. Kirol turismo arduratsua sustatzea</b>
	<b>Lan programa</b>
	<b>D.2. Turismoan eragin handia izango duten ekitaldiak antolatzea</b>
	<b>Proiektua</b>
	<b>D.2.1. Udalerrian kirol ekitaldien plan bat zehaztea, jarduera ekonomikoa edo turistikoa sortzeko ahalmena duten ekitaldiak identifikatuz</b>

**Deskribapena**

Aldian behingo kirol gertakariak ugaltzearena errealitate orokorra da sektorean, eta hori kirola zabaltzeko eta turismoa zein ekonomia erakartzeko elementu bat da. Aldi berean, hazkunde horrek dakar ekitaldien artean lehia handiagoa izatea, bai eta ekitaldien antolakuntzarako beharrezkoak diren baliabideak ugariak izatea ere. Horregatik, funtsezkoa da kirol ekitaldien bitartez udalerrian lortu nahi den helburuari buruzko gogoeta egitea, ekitaldien plan bat sortzea, honako hauek zehaztuz: jarduera fisikoa eta kirola sustatzeko ekitaldiak, parekidetasuna kirolean, irisgarritasuna, ekonomia eta turismoa dinamizatzeko baliagarriak diren ekitaldiak, zerikusia duten eragileak eta eragile horiek ekitaldietan duten betekizuna. Baliabide guztiei behar besteko etekina ateratzeko, garrantzitsua da plangintza hau zeharka egitea hainbat udal sail eta eragileren artean.

**Eragile dinamizatzailerak**

- |   |   |
|---|---|
| • Turismo Saila                                     | • Kirol klubak eta erakundeak             |
| • Turismo enpresak eta bidaia agentzia handizkariak | • Gizarte entitateak                      |
| • Udalerriko kirol zentro pribatuak                 | • Ingurumen eta kultura arloko erakundeak |
|   | • Tokiko merkataritza erakundeak          |

**Ekintza zehatzen adibidea**

- Lan saioak hainbat kirol erakunderekin, kirol denboraldian egingo diren aldian behingo jardueren plangintza egiteko eta Udalak izan dezakeen sostengu maila zehazteko.
- Kirol ekitaldi garrantzitsu batean jarduera osagarriak egitea, edo alderantziz, lurraldean turismoaren dinamizazio handiagoa izateko (merkataritza azoka, haurrentzako jarduerak, etab.).
- Antolatzen diren aldian behingo kirol jarduera ez sozialen gutxieneko autofinantzaketa maila zehaztea.
- Kirol ekitaldi bakoitzaren eragin ekonomikoa, turistikoa eta soziala aztertzea, ekitaldi guztietarako adierazle bateratuak eta amaierako memoria osatuz.

**Printzipio gidariak**

- Parekidetasuna, irisgarritasuna eta erantzunkidetasuna

**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

Egikaritze faseak		
1. fasea: 2018-2020	2. fasea: 2021-2023	3. fasea: 2024-2027
Kostua		
Txikia	Ertaina	Handia
Lehentasuna		
★	★★	★★★

**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

Zenbakia	Ildo estrategikoa		
D.2.2	D. Kirol turismo arduratsua sustatzea		
	Lan programa		
	D.2. Turismoan eragin handia izango duten ekitaldiak antolatzea		
	Proiektua		
	D.2.2. Jardunbide egokien eta protokoloen eskuliburu bat egitea, kirol ekitaldi arduratsuak antolatzeko		
Deskribapena			
<p>Kirol ekitaldiak hobeto antolatzeko, beharrezkoa da ondo definitutako prozedurak eta protokoloak edukitzea. Askotariko eragile antolatzaileak, espazioak, lurralde erabilerak zein eraginak, sostengu baliabideen premia (esaterako, poliziakideak, anbulantzia, boluntarioak, etab.) daudenez, ezinbestekoa da ekitaldi guztietarako irizpide bateratuak finkatzea, kalitate estandar batzuk bermatzea, eta antolatzaileen konpromisoa izatea, bai eta kirol denboraldi osoan zehar egingo diren ekitaldietarako beharrezkoak diren udal baliabideak aurreikusi ahal izatea ere.</p>			
Eragile dinamizatzaileak			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kirol klubak eta erakundeak</li> <li>• Ingurumen eta kultura arloko erakundeak</li> <li>• Gizarte entitateak</li> <li>• Turismo Saila</li> </ul>			
Ekintza zehatzen adibidea			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Antolatzaileek onartu beharreko konpromisoak zehaztea, kirol ekitaldiaren helburuaren arabera.</li> <li>• Udalerrian egiten diren kirol ekitaldien proposamenak aurkezteko, ebaluatzeko eta onartzeko prozesuak zehaztea.</li> </ul>			
Printzipio gidariak			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Parekidetasuna, irisgarritasuna eta erantzunkidetasuna</li> </ul>			
Egikaritze faseak			
1. fasea: 2018-2020	2. fasea: 2021-2023	3. fasea: 2024-2027	
Kostua			
Txikia	Ertaina	Handia	
Lehentasuna			
★	★★★		★★★★

**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

Zenbakia	Ildo estrategikoa
D.3.1	D. Kirol turismo arduratsua sustatzea
	Lan programa
	D.3. Komunikazioa eta sustapen ekintzak hobetzea
	Proiektua
	D.3.1. Arrasateko kirol eskaintzari buruzko app bat, webgune bat eta korporazio irudi bat sortzea

**Deskribapena**

Nola turistei begira, hala herritarrei begira kirola sustatzeko, batetik; eta, bestetik, Arrasate hiri aktibo eta kirolzalea izan dadin, ezinbestekoa da komunikazio egokia izatea. Horretarako, korporazio irudi bat sortzea eta erabiltzen diren komunikazio bideak (web orriak, sare sozialak, sakelako telefonoetako aplikazioak, informazio diptikoak, kirol baliabideen katalogoak, etab.) hobetzea proposatzen da. Herritarrek sentsibilizatzeko eta hiri iraunkor batekin identifikatzeko kanpainak egitea ere elementu garrantzitsua da, jarduera fisikoa eta kirola sustatzeko baliagarria izango dena, bai eta herritarren artean ohitura osasungarriak izatea lortzeko ere.

**Eragile dinamizatzaileak**

- Turismo Saila
- Komunikazio Saila
- Kirol klubak eta erakundeak

**Ekintza zehatzen adibidea**

- Udalerriko jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko logotipo identifikagarri bat sortzea.
- Udalerriko kirola ardatz duten sare sozialak dinamizatzea. Eskaintza turistikoa eta herritarrentzako kirol eskaintza bereiztea, nahiz eta edukiak partekatzeko aukera izan.
- Herritarrentzako txartel aktibo bat sortzea, horiei jarraipena egiteko urtean zehar egiten diren aldian behingo kirol ekitaldietan; eta, amaieran, oparia.

**Printzipio gidariak**

- Parekidetasuna, irisgarritasuna eta erantzunkidetasuna

**Egikaritze faseak**

1. fasea: 2018-2020	2. fasea: 2021-2023	3. fasea: 2024-2027
---------------------	---------------------	---------------------

**Kostua**

Txikia	Ertaina	Handia
--------	---------	--------

**Lehentasuna**

★	★★	★★★
---	----	-----

**ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA**  
**2. liburukia. Ildo estrategikoak, programak eta proiektuak**

Zenbakia	Ildo estrategikoa		
D.3.2	D. Kirol turismo arduratsua sustatzea		
	Lan programa		
	D.3. Komunikazioa eta sustapen ekintzak hobetzea		
	Proiektua		
	D.3.2. Kirola eta jarduera fisikoa eta horien kirol eta turismo eskaintza dinamizatzeko sustapen kanpainak egitea		
Deskribapena			
<p>Turismo aktiboa eta natur turismoa hobetzeko, beharrezkoa da sustapen kanpaina egokiak egitea; betiere, era horretako zerbitzuan transmititu nahi diren balioak aintzat hartuz. Ingurumenarekin errespetuz jokatzeko duen turismo bat sustatu nahi bada, edo familiaren aisialdirako turismoa... egiten diren sustapen kanpainak balio horiek transmititu beharko dituzte, eta egokienak diren hedapen bideak erabili beharko dituzte. Era berean, udalerriaz gaindiko beste eragile batzuekin ere elkarlanean aritzea gomendatzen da; alegia, udalerritik kanpora ere lurraldeko turismoa sustatzeko lan egiten dutenak. Eragile horiek, hartara, Arrasateko eskaintza ahalik eta eguneratuena txertatuko dute.</p>			
Eragile dinamizatzaileak			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Turismo Saila</li> <li>• Turismo enpresak eta bidaia agentzia handizkariak</li> <li>• Kirol klubak eta erakundeak</li> <li>• Debagoieneko Eskualde Kontseilua</li> <li>• Gipuzkoako Foru Aldundia</li> </ul>			
Ekintza zehatzen adibidea			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Turismo eskaintza txertatzea eskualdeko, probintziako eta Euskadiko komunikazio eta aplikazioetan.</li> <li>• Arrasateko eskaintzen duen natur turismo aktiboaren balioak definitzea eta transmititzea.</li> <li>• Turismo eta turismo aktiboen azoketan parte hartzea.</li> </ul>			
Printzipio gidariak			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Parekidetasuna, irisgarritasuna eta erantzunkidetasuna</li> </ul>			
Egikaritze faseak			
1. fasea: 2018-2020	2. fasea: 2021-2023	3. fasea: 2024-2027	
Kostua			
Txikia	Ertaina	Handia	
Lehentasuna			
★	★★	★★★	





ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

